



eraberean

**TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA
DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA**

**RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO
Y NO DISCRIMINACIÓN**

Eraberean Sarearen jarduera 2020an

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



eraberean

**TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA
DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA**

**RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO
Y NO DISCRIMINACIÓN**

Eraberean Sarearen jarduera 2020an

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2021

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2021eko uztaila

Ale-kopurua:

60

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:

Komunikazioaren Zuzendaritza. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Inprimaketa:

Eusko Jaurlaritzako Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua

L.G.:

LG G xxxxx-2021

aurkibidea

1. ERABEREAN SAREAREN JARDUERA 2020an	5
Eraberean: Tratu-berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Sarea	7
Eraberean Sarearen jarduera 2020an	10
BARNE-JARDUERA	11
KANPO-JARDUERA	14
• 1. lan-ardatza: Prebentzioa, Prestakuntza eta Sentsibilizazioa	14
Sareari buruzko informazioa emateko eta Sarea ezagutarazteko jarduerak	15
Prestakuntza-jarduerak	20
Sentsibilizazio-jarduerak	29
Sareak parte hartu duen beste jarduera batzuk	31
• 2. lan-ardatza: Arreta, Aholkularitza eta Laguntza	36
Sareak 2020an artatutako kasuei buruzko datu nagusiak	37
Informazio soziodemografikoa	38
Profil soziodemografikoa, begiraden arabera	52
Diskriminazio-eremuak	59
Nabarmentzeko kasuak	72
2.ERABEREAN SAREAK ARTATUTAKO PERTSONEI EGINDAKO ELKARRIZKETAK	77
Ijitoen aurkako diskriminazio-tratuaren biktima bati elkarrizketa	79
Banketxe batean izandako diskriminazio-tratuaren kontakizuna	82
Emakume trans baten lekukotasuna	85
3.DISKRIMINAZIOA ETA PANDEMIA	89
Sarrera	91
Familian eta etxean	94
Espazio publikoaren eta segurtasunaren arloan	96
Sare sozialetan eta komunikabideetan	101
Osasun arloan	105
Hezkuntzaren arloan	110
Enpleguaren arloan	113
Administrazio publikoekiko harremanean	116
Amaierako oharra	118
Bibliografia	123

ERABEREAN SAREAREN JARDUERA 2020AN

ERABEREAN: TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA

Eraberean Sarea 2014. urtearen amaieran sortu zen arraza-, etnia- edo nazio-jatorriak eta sexu-orientazio edo -identitateak eta genero-identitateak eragindako diskriminazioaren aurka borrokatzeko. Eusko Jaurlaritzako orduko Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak sustatu zuen, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzaren bidez, gerora Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza izan dena. Esan beharra dago, 2020ra arte egitura hori izan bada ere, 2021ean honako hau dela: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila eta Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza.

Hasieratik balioetsi zen zein garrantzitsua den lan hori sarean egitea, hainbat gizarte-erakunderekin batera; izan ere, immigrazioaren, ijitoen eta LGTBI kolektiboen sustapenaren esparruan esku hartzen ibilbide luzea izateaz gain, erreferenteak ere izan zitezkeen diskriminazio-kasu baten berri ematera joandako pertsonentzat edo kolektiboentzat, eta, horrela, “antena” moduan funtzionatu dute arraza-, etnia- edo nazio-jatorriagatiko eta sexu- orientazio edo -identitateagatiko eta genero-identitateagatiko eskubide-urraketei antzemateko eta tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa zabaltzen laguntzeko, informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzen bidez.

Aurrerantzean, erakunde horiei “antena” deituko diegu, eta lehen aipatutako hiru hurbilketak –migratzailea, ijitoa eta LGTBI– “begirada” gisa aipatuko ditugu. Hori Eraberean Sarearen berezko terminologia da; erabili ahala sendotuz joan da eta, horregatik, txosten honetan errespetatu nahi dugu.

Ondorioa autonomia-erkidego mailako lan-sare bat eratzeke adostasuna izan zen, esku hartzeko eredu partekatua izango zuena, ekimenarekin bat egiteko

konpromisoa hartu zuten hainbat gizarte-erakunderekin (hasieran 12 eta gaur egun 11), eta erantzukizun publikoa eta ekimen soziala batuko zituen, kolektibo horien eta euren sustapenaren alde.

Eraberean Sareko antenak hauek dira: Aldarte, CEAR-Euskadi, Gurutze Gorria; Gao Lacho Drom, CITE-CCOO Bizkaia, Errespetuz, Kale Dor Kayiko, Nevipen, Agifugi, Gehitu eta SOS Arrazakeria Gipuzkoa.

Geroago, 2018an, beste bi elkarte sartu ziren Eraberean Sarean, erakunde laguntzaile gisa. Bizigay (LGTBI eremua) eta Amuge (Ijito Herriaren eremua) elkarteak dira.

Erakunde horiek, saileko, Biltzen (Integraziorako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua) eta Berdindu (LGTBI pertsonen informazioa eta arreta emateko Euskal Zerbitzua) zerbitzuetako eta Ijito Herriaren Euskadiko Kontseiluko Idazkaritza Teknikoko langileekin batera, Eraberean Sarea osatzen dute, zeinak oinarritzko helburu hauek baititu:

- Tratu-berdintasunaren aldeko eta arraza-, etnia- edo nazio-jatorriak, sexu-orientazioak edo -identitateak eta genero-identitateak eragindako diskriminazioaren aurkako politikak sustatzea.
- Herritarrei beharrezko tresnak ematea (informazioa, aholkularitza, orientazioa) diskriminaziozko tratu baten ondorioz eskubideak urratzen bazaizkie beren eskubideak balia ditzaten.
- Sarea osatzen duten erakundeek edo antenek artatutako kasuen erregistroa sistematizatzea eta horiek aldagai garrantzitsu batzuen arabera aztertzea ahalbidetuko duen txosten batean aurkeztea.

Honako hauek dira Sarearen barruko funtzionamendu-egitura nagusiak:

- Talde eragilea. Zuzendaritzako, Biltzeneko, Berdinduko eta Ijito Herriaren Euskadiko Kontseiluko Idazkaritza Teknikoko kideek osatzen dute. Sarea maila politikoan bultzatzeko, baliabideak bilatzeko eta horren jarraipena eta ebaluazioa egiteko eginkizuna du.
- Idazkaritza teknikoak: Sarearen funtzionamendua koordinatzen eta bideratzen du. Biltzenek bere gain hartu du zeregin hori.
- Osoko bilkura: Gune honetan elkartzen dira Sarea osatzen duten eragile guztiak. Aldian-aldean biltzen dira, antenak egin dituzten edo egin asmo dituzten jarduerak, esku artean dituzten kasuak eta Sarearen funtzionamendurako garrantzitsutzat jotzen den beste edozein gai Sarean partekatzeke.
- Batzordeak: Sarearen barruan eratutako lantalde espezializatuak dira. Batzordeak Sareko kideek berek osatzen dituzte: antenen ordezkariak, talde eragileko kideak eta idazkaritza teknikoak. Hasieran, honako batzorde hauek sortu ziren:
 - Informazioa eta Dokumentazioa
 - Prestakuntza eta Sentsibilizazioa
 - Diskriminazioaren Biktimentzako Arreta, Aholkularitza eta Laguntza.

Hiru batzorde horiez gain, 2017an sortutako lantalde bat dago, Sarearen barneko eta kanpoko komunikazioarekin lotuta sortu diren gai oso zehatzei puntualki erantzuteko, baina ez da formalki eratu lan-batzorde gisa.

ERABEREAN SAREAREN JARDUERA 2020AN

Txosten honen helburu nagusia Eraberean Sareak 2020an egindako lanaren alderdirik esanguratsuenak jasotzea da.

Aurreko urteetan bezala, lan hori bi mailatan egin da: barrura begira eta kanpora begira.

Azpimarratu beharra dago 2020ko martxotik aurrera ekintza presentzial ugari bertan behera geratu direla COVID-19aren pandemiak sortutako ezohiko alerta-egoera sanitarioaren ondorioz, eta horrek eraldatu egin du, denborari eta moduari dagokienez, Eraberean Sarearen jarduna urte horretan.

Txosten honetan bertan aurkituko duzu COVID-19ak Eraberean Sarearen jardunean izan duen eraginari buruzko kapitulu bat.

BARNE-JARDUERA

Sarea antolatzea, bateratzea, sendotzea eta garatzea

Sarearen funtzionamendua, koordinazioa eta dinamizazioa ahalbidetzen duen ohiko dinamika da, eta hori bileren bidez gauzatzen da, Sarea koordinatzen duten egitura hauen artean:

1. Talde eragilea: Sarea bultzatzeko eta haren jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Talde eragilea sistematikoki biltzen da osoko bilkura bakoitzaren aurretik, baita beharrezkotzat jotzen duen bakoitzean ere: 2020an, 7 aldiz bildu da talde eragilea.
2. Osoko bilkurak: Eraberean Sarea 7 osoko bilkuratan bildu da 2020an, eta horietan parte hartu dute Sarea osatzen duten erakundeetako ordezkariak, talde eragileko kideak eta idazkaritza teknikoak.
3. Batzordeak: lan-espazio espezializatuko hiru batzordeak (Informazioa eta Dokumentazioa; Prestakuntza eta Sentsibilizazioa; eta Diskriminazioaren Biktimentzako Arreta, Aholkularitza eta Laguntza) hainbat bilera egin dituzte 2020an.

Beste alde batetik, 2020. urtean, barne-mailan, ezinbestekoa da hau nabarmentzea: **Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoak 2018an sinatu zuten lankidetzaz hitzarmenaren¹ ondorioz egindako jardura.**

Hitzarmen horren bitartez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Eraberean

¹ Sarearen jarduerari buruzko 2018ko txostenean informazio zabala eskaini zen hitzarmen horri buruz.

Sareko langileen parte-hartzea sustatzen du Klinika Juridikoak egiten dituen mintegietan, eta Eraberean Sareko erakundeek artatutako kasu errealei buruzko informazioa ematen dio Klinika Juridikoari.

Bestalde, Klinika Juridikoak kasu horiek aztertu eta Sarera itzultzen ditu, tratamendu espezializatua emanez. Gainera, Klinika Juridikoak bere lankidetzak eskaintzen du Eraberean Sarearentzat interes estrategikoa duten beste eduki batzuei heltzeko.

Lankidetzak hori 2020an gauzatu da, urtean zehar egin diren hainbat jardueraren bidez. Hori bai, esan beharra dago COVID-19ak aurrez aurreko eskolak bertan behera utzi zituela, eta ondorioz, jarduera horietako batzuk aldatu egin behar izan zirela, baita bertan behera utzi ere beste batzuk:

- Eraberean Sarearen parte-hartzea Klinika Juridikoak egindako prestakuntza-mintegietan. Horien artean, azpimarratzekoa da “Kasuak aurkezteko” saioa: Eraberean Sareak Klinika Juridikoko ikasleei Sareak artatutako kasuen multzo hautatu bat aurkeztean datza.
(Saio horiei buruzko xehetasun gehiago kapitulu honetan bertan, **UPV/EHUko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoak antolatutako prestakuntza-saioak atalean**).
- Klinika Juridikoak bere lankidetzak eskaini dio Eraberean Sareari, Sarearentzat interes estrategikoa duten edukiei heltzeko.

Eraberean Sareak honako eduki hauek jo zituen lehentasunezkoetat:

- Auzi estrategikoa
- Biktimei arreta emateko protokoloa berrikustea
- Hiru mailako prestakuntza-moduluak, Eraberean Sareko prestatzaileentzat
- Jurisprudentzia

Lehentasun horiek lan-ildo bana dakarte, eta horietako bi 2019an hasi ziren; zehazki, auzi estrategikoari eta jurisprudentziari buruzkoak.

Auzi estrategikoarena Klinika Juridikoak lehendik landutako gaia da. 2020an berriz heldu zaio auzi estrategikoaren gaiari prestakuntza-mintegietako batean, oraingo honetan beste tratamendu bat emanez, alegia, arreta Sarean bertan jarrita. (Saio horri buruzko xehetasun gehiago kapitulu honetan bertan).

Bestalde, Klinika Juridikoak beste lan-ildo bati heldu dio 2020an: Eraberean Sarearen biktimei arreta emateko protokoloa berrikustea.

Lan horren ondorioz, Sareak biktimei arreta emateko protokoloaren zirriborro bat jaso du, Klinika Juridikoko lan-talde batek egingo duen zeregin horretarako sortutakoa.

Zirriborro hori Eraberean Sarearen antenei bidali zaie egungo protokoloarekin kontrastatu dezaten. Antenen ordezkariak eta talde eragilearen kideak egindako ekarpenak dokumentu bakarrean jaso dira. Egiteke geratu da, Sarearen aldetik, Klinika Juridikoko taldeari, modu batera edo bestera, egindako lanaren itzulketa bat eskaintzea.

Azkenik, arlo ezberdinetako diskriminazio-kasuen inguruko jurisprudentzia dagoeneko zabalik dagoen lan-ildo bat da. Sareak artatu eta Klinika Juridikoak landu dituen kasuekin lotutako jurisprudentzia da.

- Klinika Juridikoaren eta Eraberean Sarearen arteko lankidetzaren Tratu-berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko II. Euskal Kongresuaren inguruan.

Lankidetzaren hori honetan gauzatu da: Klinika Juridikoaren parte-hartzea kongresuaren antolaketan. Izan ere, Klinika Juridikoak parte hartu du kongresuaren diseinuaren eta edukiaren inguruko erabakiak hartu dituen diziplina askotako batzorde teknikoan.

Zoritxarrez, egoera sanitario larriaren ondorioz, kongresua bertan behera utzi behar izan zen.

KANPO-JARDUERA

Gizarte-proiektzioa eta pertsona eta kolektiboei arreta ematea

Jarduera hori bi lan-ardatzen inguruan egiten da. Lehenengo ardatzak, **informazioaren, dokumentazioaren, prebentzioaren, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren** arloan tratu-berdintasunaren printzipioarekin lotuta egiten diren ekintza guztiak hartzen ditu barne. Bigarrenak, berriz, biktimak hartzen ditu jomugan: jatorriak, etniak, nazionalitateak edota sexu- eta genero-orientazio edo -identitateak eragindako diskriminaziozko tratu edo gorroto-delitu baten biktima edo lekuko izanda, antenen bitartez Eraberean Sarearekin harremanetan jartzen diren pertsonak. Sareak **arreta, aholkularitza eta laguntza ematen die**.

1. lan-ardatza:

Prebentzioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa

Lan-ardatz hau Sareari buruzko informazio-, dokumentazio- eta hedapen-jarduera guztiei dagokie, bai eta erakundeei, gizarte-erakundeei eta gizarte zibilari prestakuntza, sentsibilizazioa eta aholkularitza emateko jardueri ere.

Bi batzordek garatzen dute lan-ardatz hau: **Informazio eta Dokumentazio Batzordeak eta Sentsibilizazio eta Prestakuntza Batzordeak**. Hala ere, batzorde horietako bakoitzaren lan-eremua ez da itxia, eta zenbaitetan elkartzen dira proiektu edo jarduera batzuk batera egiteko.

Edonola ere, aipatzekoa da ardatz honen inguruan egiten diren jarduera guztiak ez dituztela batzorde horiek gauzatzen.

Sareari buruzko informazioa emateko eta Sarea ezagutarazteko jarduerak:

Sareari buruzko informazioa zabaltzeko eta Sarea ezagutzera emateko, jarduera ugari egin dira maila desberdinetan:

Sarearen jarduerari buruzko 2019ko txostena

Eraberean Sarearen jarduerari buruzko 2019ko txostena egitea eta zabaltzea, Sareari buruzko informazioari dagokionez, jarduera esanguratsua izan da 2020an.

Txostenak Eraberean Sarearen bosgarren urteko jarduera jasotzen du, eta helburu nagusia da Sareak eta hori osatzen duten elkarteek 2019an egindako lana ikusaraztea.

Bertan, Sarearen urte horretako jarduera garrantzitsuenak zehazten dira: Sareari buruzko informazioa emateko eta Sarea ezagutarazteko jarduerak, prestakuntza-jarduerak, sentsibilizazio-jarduerak eta abar.

Gainera, Sareak 2019an artatu dituen kasuen kopuruari buruzko datuak eta horien azterketa eskaintzen dira txostenean. Horiekin batera, antenek artatutako kasu sorta baten nondik norakoak jasotzen dira.

Bestalde, txostenean Sareak artatutako bi diskriminazio-biktimari egindako elkarrizketa bana ere argitaratzen dira:

- Ijitoen aurkako diskriminazio-tratuaren biktima bati elkarrizketa, Nevipenek egina.
- Belo islamikoa eramateagatik diskriminazioa jasan duen biktima bati elkarrizketa, CEAR Euskadik egina.

Txosten hori Eraberean Sarearen web-orrian txertatu zen ². Horrez gain, edizio inprimatu bat ere egin zen, 60 alekoa.

Azkenik, interes bereziko puntuetan zabaldu zen txostena, hala bertsio digitala nola paperekoa.

Antenek Sarea ezagutzera emateko egindako lana

Atal honen izena izan liteke Sarea pandemia garaian ezagutzera ematea; izan ere, 2020an, pandemiak sortutako ezohiko egoerak eta horretatik eratorritako murrizketek baldintzatu dute Eraberean Sarea ezagutarazteko egindako lana.

Eraberean Sarea osatzen duten elkarteek Sarea eta haren jarduna ezagutarazteko lanari jarraipena eman diote 2020an.

Eraberean Sarea osatzen duten elkarteek Sarea ezagutarazteko hainbat jardura egin izan dituzte esparru desberdinetan (jardunaldiak, hitzaldiak, topaketak, prestakuntza-saioak...) baina, esan beharra dago, egoera sanitarioa dela kausa, jardura horietako batzuk aldatu egin behar izan direla, baita bertan behera utzi ere beste batzuk.

Edozein modutara, antenek Sarea ezagutzera emateko urtero egiten dituzten ekintzetako batzuk 2020an ere egin ahal izan dira, baina ez ditugu txosten honetan azalduko, izan ere, haiei buruzko nahikoa informazio eskaini da aurreko txostenetan.

Aurreko urteen aldean, hala ere, ahalik eta zabalkunde handiena emateko helburuz, 2020an elkarteek formula berriak bilatu beharra izan dute, bide

² Esteka honetan eskura daiteke txostena: <http://www.euskadi.eus/rederaberean>

desberdinak erabiliz eta modu telematikoan. Elkarrekin askotan whatsapp lehenetsi dute informazioa zabaltzeko bide gisa, batez ere euren kontaktuekin erabiliz. Informazioa, arrazoi ezberdinengatik, ohiko bideetatik lortzen ez dutenengana ere zuzendu dira, edo zerbitzua ezagutu ez edota hari buruzko zalantzak dituztenengana.

Konfinamendu garaian sare sozialak Eraberean Sareak bere jarduerak aurkezteko eta garatzeko ordezkari esparru bihurtu dira.

Nabarmendu nahi dugu hemen **CEAR-EUSKADI**ren ekimena, Eraberean Sareak eskaintzen duen arreta ezagutzera emateko:

Biktimei arreta emateko zerbitzua suspertu nahian, konfinamendu garaian ..., eta beti ere, helburua biktimengana heltzea izanda, CEAR Euskadik abian jarri zuen ekimen erraz eta interesgarria: Eraberean Sarearen zerbitzua whatsapp bidez eta sare sozialetan ezagutzera ematea.

Horretarako, CEAR Euskadik imajina-sorta bat sortu zuen eta whatsapp bidez zabaltzeko euren kontaktuen artean, baita sare sozialetan ere, helburua biktimei arreta emateko zerbitzua, Eraberean Sarearena, ezagutzera ematea zen. Imajinak euskaraz, arabieraz eta gaztelaniaz editatu ziren.



Imajina horiek beste antenen esku jarri ziren eta CEAR Euskadik bere lankidetza eskaini zien antenei kanpaina honi atxikitzeko, imajinen edukia eta testuak egokituta, eurek ere zerbitzua ezagutzera emateko.



ERABEREAN SAREA

Azken hilabeteak gogorrak izan dira zaugarritasun-egoera larrietan bizi diren pertsonentzat.

Diskriminazioa jasan baduzu arraza-, etnia- edo nazio-jatorriagatik, sexu-orientazioagatik edo sexu- eta genero-identitateagatik, edo horrelako kasuren bat ezagutzen baduzu, jarri gurekin harremanetan.

Arreta aurrez aurre ematen jarraitzen dugu Eraberean Sarearen bulegoetan (Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako Sarea).

ARABA

 Aldarte.....945 257 077

CEAR Euskadi.....945 266 805

Gurutze Gorria.....945 222 222

Gao Lacho Drom.....945 225 039

BIZKAIA

 CITE-CCOO Bizkaia.....944 243 424

Errespetuz.....675 459 317

Kale Dor Kayiko.....691 674 414

Nevipen.....946 526 989

GIPUZKOA

 AGIFUGI.....943 248 086

Gehitu.....943 468 516

SOS Arrazakeria.....943 321 811

Honako helbide honetan aurkituko dituzu Sarearen eta bere antenen inguruko informazioa, argibideak edota argitalpenak:
<https://www.euskadi.eus/erabereansarea>

EUSKO JAURLARITZA
EMPLEUO ETIA GIZARTIA
 POLITIKAKO SAREA


GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
 Y POLÍTICAS SOCIALES

Illo beretik, eman dezagun adibide moduan antenek informazioa zabaltzeko bidalitako txartela. Txartel hori Sareak propio sortua da aurrez-aurreko arreta zerbitzua berriz ere martxan zegoela ezagutzera emateko, konfinamenduaren ondoren. Hau da txartela:

Prestakuntza-jarduerak:

Eraberean Sareak prestakuntza-jarduera hauek gauzatu ditu 2020. urtean:

1. Barne-prestakuntzako saioak, Eraberean Sareak antolatuta

Eraberean Sareko eragileentzako prestakuntza-programa batentestuinguruan, 2020an zehar, **barne-prestakuntzako** bi saio egin dira, Sareak berak antolatuta.

Edonola ere, nabarmendu behar da alarma sanitarioa deklaratzeko zapuztu egin zuela, martxotik aurrera, beste prestakuntza saio batzuk egiteko aukera, Sareak urte horretarako aurreikusita zituenak.

Burutu diren saioak hauek izan dira, hain zuzen:

- **Prestakuntza-saioa, sartzeko ukatzeko eskubideari buruzkoa eta aisialdi-jardueretara eta publikoarentzako establezimenduetara sartzeko eskubideari buruzkoa.**

Saioa martxoaren 2an izan zen, bi ordukoa, eta Itziar Barrenkuak, Arartekoaren bulegokoak, eman zuen prestakuntza.

Saioaren helburua honako hauek argitzea zen:

- Sartzeko ukatzeko eskubidea mugatzea: zer arauditan oinarritzen den eta batzuetan eskubide horren erabilera arbitrarioa ote den.

- Aztertzea herritarrok zer eskubide daukagun geure burua babesteko, lokal, eremu edo zerbitzu batean sarrera ukatzeko eskubidea baliatuz sartzea ukatzen digutenean, eta nola erantzun dezakegun gure eskubideen urraketa egon dela uste dugunean.
- Ezagutzea zein den Arartekoaren egitekoa gai honetan, eta aztertzea Eraberean Saretik non jarri dezakegun indarra herritarren eskubideak babesten laguntzeko, batez ere Sarearen helburu diren kolektiboenak.

Itziar Barrenkuak azalpen interesgarria eskaini zien Eraberean Sareko langileei, sartzea ukatzeko eskubideari buruz eta aisialdi-jardueretara eta publikoarentzako establezimenduetara sartzeko eskubideari buruz.



Zer esan nahi du “Sarrera ukatzea erreserbatuta” adierazpenak?

Ukatu al daiteke publikoarentzako establezimendu batean sartzea?

Zertan oinarrituta ukatu daiteke sartzea?



Sarrera ukatzeko eskubidea adierazten duen txartela erakuste hutsak ez dauka baliorik.

Baliatu daiteke eskubide hori, bai, baina mugatua da, ezin baita eskubide konstituzionalen aurkakoa izan, ezta diskriminatzailea ere.

Edozein modutan, txartelak publikoa izan behar du, begibistakoa eta irakurterraza.

Baina sarrera ukatzeko eskubidea adierazten duen txartelak, besterik gabe, ezin ditu bazterketa arbitrarioak eragin.

Halaber, Gasteizko Sindikoaren 2007ko gomendioa aurkeztu zuen Itziar Barrenkuak, aisialdiko lokaletan sarrera ukatzearekin lotutakoa.

Prestakuntza-saioan erabilitako bi diapositiba aukeratu ditugu. Hauek, hain zuzen:

- **“Aniztasuna eta diskriminazioa Euskadin: diskriminazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak” txostenaren aurkezpena.**

Abenduaren 14an, Eraberean Sarearen osoko bilkuraren barruan, “Aniztasuna eta diskriminazioa Euskadin: diskriminazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak” txostenaren aurkezpena egin zen. Txostena Ikuspegik egin du 2020an.

Txostena egiten parte hartu duen Ikuspegiko ikerlari batek aurkeztu zien txostena Eraberean Sareko ordezkari.

2. UPV/EHUko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoak antolatutako prestakuntza-saioak

Eraberean Sareko langileek **Klinika Juridikoaren prestakuntza-saioetan** parte hartu dute 2020an, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoaren arteko lankidetzaren hitzarmenari esker, kapitulu honetan bertan Sarearen **barne-jarduerari** buruzko atalean azaldu den bezala.

Klinika Juridikoaren 2020ko urtarrila eta maiatza artean egindako saioetatik, (2019-2020 ikasturterako prestakuntza-planaren barrukoak), honako hauek nabarmendu behar dira, Sarearentzat duten interes bereziagatik:

- Urtarrilaren 29an, **Auzi estrategikoari** buruzko prestakuntza-saioa

egin zen. Patricia Orejudok eman zuen saioa. Zuzenbidean doktorea da eta nazioartean emakumeen eskubideen defentsan aditua.

Saio hori Klinika Juridikoaren eta Eraberean Sarearen artean elkarlanean egindako jardueren barruan dago, eta Eraberean Sareak lehentasunezkoztat jotako lan-ildo bati erantzuten dio: Auzi estrategikoa.

Eraberean Sarearen interesari erantzunez, hizlariak gaiari orientabide juridikoa emateaz gain, beste hau ere eman zion: gizarte-eraginaren eta komunikazioaren ikuspuntutik, mediatikoa...

- **Interseksionalitatea: bete gabeko hitza?** izeneko saioa martxoaren 11n izan zen eta Jeanne-Rolande Dacougnak eman zuen. Ikerlari doktorea da, ekintzaile feminista eta Biltzeneko kultura-kudeatzailea. Biltzen Integratziarako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua da eta Eraberean Sarean parte hartzen du.

Halaber, Klinika Juridikoaren 2020ko urria eta abenduaren arteko saioetatik (2020-2021 ikasturterako prestakuntza-planaren barrukoak), guztiak modu telematikoa aurreikusita, honako saio hauek nabarmendu behar dira:

- **Eraberean Sareak artatutako benetako diskriminazio-kasuak aurkezteko** saioa. Azaroaren 18an egin zen, Klinika Juridikoko prestakuntza-mintegien barruan. Horretarako, Eraberean Sareko partaideek, Sareko Arreta, Aholkularitza eta Laguntza Batzordearekin lankidetzan, hainbat antena eta begiradako kasuak hautatu dituzte, interesgarritzat jo baitituzte Klinika Juridikoko ikasleentzat zein antenentzat beraientzat.

Zehazki, saio horretan, honako antena hauek artatutako kasu errealak aurkeztu ziren: CEAR Euskadi eta SOS Racismo Gipuzkoa (migratzaileen begiradakoak), Agifugi eta Kale dor Kayiko (ijitoen begiradakoak).

Antenek kasu horiek aztertzeko interesa dutenez, Klinika Juridikoari egiten dioten ekarpenaz gain, Eraberean Sarearen berezko prestakuntza gisa hartzen dira saio horiek.

- **Ijitoen aurkako jarrera: arrazakeria instituzionalaren modu espezifiko bat** izeneko ponentzia, Pastora Filigranaren eskutik. Pastora Filigrana abokatua da eta *Ijitoen aurkako jarrerari aurre egiteko Ituna. Jarduketa-protokoloa* lanaren erredakzio-taldeko partaidea.

Hasiera batean saioa apirilera aurreikusita zegoen, baina egoera sanitarioa zela eta, bertan behera geratu zen. Azkenean abenduaren 16an egin zen, on line modalitatean.

Ijitoen kontrako jarreraren gaia, hain zuzen, Eraberean Sareak proposatutakoa zen, Klinika Juridikoak egindako eskaintzari erantzunez, alegia, Sarearen intereseko gairen bat aukeratzeko eskaintza, formakuntza-mintegiren baterako.

3. Eraberean Sarea osatzen duten antenek antolatutako kanpo-prestakuntzako saioak

- **Tratu-berdintasunari eta diskriminazio ezari buruzko oinarritzko prestakuntza-saioa + Ausartak saioa**

Eraberean Sareak tratu-berdintasunari eta diskriminazio ezari buruzko oinarritzko prestakuntza-saioa antolatu du 2020an. Sareak hiru Lurralde Historikoetan saio presentzial bana egitea aurreikusita zeukan, baina, azkenean, egoera sanitarioaren neurri murriztaileen ondorioz, prestakuntza-saio bakarra burutu zen on line, azaroaren 17an. Eraberean Sareko bi antenen ordezkariak eman zuten prestakuntza-saioa: CEAR-Euskadi eta SOS Arrazakeria Gipuzkoa.

Sarearen beraren materiala oinarri hartuta, alegia, Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko Oinarrizko Gida, saioaren programa aukeratu eta saioan proiektatzeko dokumentu-gida bat egin zen.

Hona hemen prestakuntza-saio horren programa:

1. Zer da Eraberean?
2. Kontzeptuak argituz.
3. Arau-esparruak.
4. Diskriminazioa edota gorroto delituak gertatzen diren eremuak.
5. Oinarrizko orientazioak gertaera diskriminatzailearen aurrean.
6. Euskal Autonomia Erkidegoko baliabide interesgarriak.
7. Oztopoak diskriminazioaren eta gorroto delituen aurkako borrokan.

Prestakuntza-saioaren bigarren zatian Ausartak ekimenaren beste saio bat egin zen, CEAR-Euskadik antolatuta.

Gogoan izan behar da 2018an izan zela Ausartak izeneko lehenengo ekitaldia, eta ordutik bi saio burutu direla, entitate horren ardurapean. Hirugarren ekitaldirako, CEAR Euskadik **“Ausartak bai, baina nola?”** saioa antolatu du 2020an. Saioaren helburua Eraberean Sareak artatutako diskriminazio-kasuak ikusaraztea izan da, begirada desberdinetakoak.

Horretarako, hainbat pertsonak euren lekukotasuna eman zuten, ezagutzera emateko jasan zuten diskriminazio-egoera eta nola egin zioten aurre, Eraberean Sarearen elkarteek lagunduta prozesuan.

Saioa ikusgai dago Sarearen orrian:

www.euskadi.eus/erabereansarea

Saioa iragartzeko, kartel hau erabili zen:

**CURSO BÁSICO
ONLINE**
ONARRIZKO IKASTAROA

**AZAROAK
17
NOVIEMBRE**

AUSARTAK

VALIENTES

HUZTARAKI ETA ANTOLATZAILEAK:
IMPARTIDU Y ORGANIZADO POR:
Aldarte, AGIFUGI, CEAR Euskadi,
CITE-CCOO Bizkaia, Cruz Roja, Errespetuz,
Gao Lacho Droma, Gehitu, Kale Der Kayiko,
Nepipen, SOS Racismo Gipuzkoa

• INFO •
eraberean@cear-euskadi.org
945 26 68 05

IZENA AURREZ EMAN BEHAR DA
INSCRIPCIÓN PREVIA
www.labur.eus/PGdR7

**AUSARTAK BAI,
BAINA NOLA?**
Tresnak eta prozedurak,
arrazak, etnia- edo nazio-jatorriak,
sexu-orientazioak eta genero-identitateak
eragindako DISKRIMINAZIOA
AZTERTZEKO ETA SALATZEKO.

**VALIENTES SÍ,
PERO ¿CÓMO?**
Herramientas y procedimientos para
ABORDAR Y DENUNCIAR LA
DISCRIMINACIÓN por origen racial,
étnico o nacional y por orientación
sexual e identidad de género.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

eraberean
ERABEREA
GOBIERNO VASCO

Kartel generiko honetaz gain, begirada bakoitzerako kartel espezifikoak diseinatu eta zabaldu ziren:



CEAR Euskadik whatsapp bidez eta sare sozialetan zabaldu zituen Ausartak saioaren kartelak. Ezagutzera emateko estrategia mailakatua izan zen: kartel desberdinak une desberdinetan bidali ziren, taldearen kartela lehenengo eta banakakoak gero, migratzaileen begiradakoak.

Gainera, antena guztiek hartu zuten parte diskriminazioari buruzko oinarritzko prestakuntza-saioa eta Ausartak-saioa ezagutzera ematen, elkarteen eta interesa izan zezaketen pertsonen artean. Modu honetara, eragin-esparrua hiru begiradetara eta hiru Lurralde Historikoetara zabaldu zen.

Ehun lagunek baino gehiagok eman zuten izena saiorako, eta denek denbora guztian saioa jarraitu ez bazuten ere, ez zen 62tik jaitsi. Bestalde, nahiz eta hasiera batean, prestakuntza-saioa modu presentzialean diseinatu zenean, saioaren ebaluaketa egitea aurreikusi zen, azkenean ezin izan zen egin, zoom bidez ebaluaketa anonimoak jasotzeko zailtasuna dela-eta.

Edonola ere, lekukotasunen atala espreski goraipatu zuten parte hartu zuten hainbatek, izan ere, saioa bukatu ondoren, zoriondu egin zituzten bertan zeuden antenen ordezkariak.

Sentsibilizazio-jarduerak:

Eraberean Sareak honako sentsibilizazio-jarduera hauek egin ditu 2020an:

■ **Tratu-berdintasunari eta Diskriminaziorik ezari buruzko Oinarrizko Gida³: paperezko edizioa.**

Eraberean Sareak Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko Oinarrizko Gidaren edizio berri bat egin zuen 2019an, bertsio digitalean.

2020an gida horren paperezko edizioa egin da, 500 alekoa.

■ **+EGIN BAT DISKRIMINAZIOARIK GABEKO ALOKAI RUEKIN+ kanpainaren zabalkundea, CEAR-Euskadiren eskutik**

2018an, Eraberean Sarearen testuinguruan, eta CEAR-Euskadiren ekimen batetik abiatuta, sentsibilizazio-kanpaina bat egin zen etxebizitza alokatzeko diskriminazioaren aurka: +EGIN BAT DISKRIMINAZIOARIK GABEKO ALOKAI RUEKIN+ kanpaina, diskriminaziorik gabeko etxe-alokairua sustatzeko⁴.

2019an CEAR-Euskadik berriz zabaldu zuen kanpaina, Gasteizko higiezin agentzien artean. Egindako lanaren jarraipen gisa, 2020ko lehen hiruhilekoan ere, Gasteizko higiezin agentziak bisitatu ditu eta sentsibilizazio-lan bat egin du, migratzaileek eta errefuxiatuek etxebizitzan alokairuan izan ohi duten diskriminazioaren aurka. Horrez gain, Eraberean Sareak egiten duen lanaren berri eman die agentzia horiei.

3 Gida Sarearen orrian dago eskuragarri: <http://www.euskadi.eus/rederaberean>

4 Sarearen jarduerari buruzko 2018ko txostenean informazio zabala eskaini zen kanpaina horri buruz.

■ Sarea ezagutarazteko ikus-entzunezko pilula baten diseinua

Eraberean Sarea ezagutarazteko ikus-entzunezko pilula bat egitea CEAR Euskadiren ekimena izan zen. Gainera, bere gain hartu zituen pilula diseinatzearen inguruko koordinazio-lanak.

Ekimen horretarako planteatu zen helburua hurrengoak izan zen: aniztasunaren eta tratu-bereizkeriaren inguruko sentsibilizazio-lan bat egitea, beste elkarteei eta, orokorrean, zerbitzuaren erabiltzaileei zuzendua.

Bideoan hainbat pertsona-aurpegi erakusten dira abiada bizian, aniztasuna agerian uzten dutenak, eta ondoren justifikaziorik gabeko hautaketa egiten da.

Diseinu-lanak 2020an egin badira ere, pilula ez da ezagutzera eman urte horretan eta zabalkunderako momentu egokiaren zain geratu da, 2021erako.

■ “Elkarlanean aniztasunaren alde” manifestua, Aldarteren eskutik

Euskadiko Ijito-herriaren Eguna zela eta, Eraberean Sarearen testuinguruan, “Elkarlanean aniztasunaren alde” manifestua argitaratu zen, ijitoen sexu-eta genero-aniztasunaren alde; hala, aniztasuna ikusgai bihurtzea zeinen garrantzitsua den azpimarratzen da bertan. Manifestua Aldarteren sare sozialen bidez zabaldu zen (Facebook eta Twitter), eta, halaber, hainbat kolektibo eta gizarte-eragileri bidali zitzaizen posta elektronikoko bidez.



Sareak parte hartu duen beste jarduera batzuk:

Ezin dira Eraberean Sarearen jarduera propioen barruan sartu, baina Sareak antolatutako jardueren osagarri gisa egin dira eta bat egiten dute Erabereanen logikarekin. Kasu batzuetan, antena batzuek euren ekimenez egiten dituzten jarduerak dira, jarduera propio gisa edo beste antena batzuekin elkarlanean.

2020an, honako jarduera hauek dira nabarmentzekoak:

■ “Gorroto-delituak Gipuzkoan: partekatzea eta etorkizunerako erronkak” jardunaldia

Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UPV/EHuko UNESCO Katedrak antolatutako jardunaldi hori irailaren 24an izan zen, on line modalitatean.

Eraberean Sareak jardunaldian parte hartu zuen Aldarteren bitartez, Elena Olartuak egindako hitzaldiarekin, zehazki.

Eraberean Sareak jardunaldian parte hartu zuen Elena Olartuak egindako hitzaldiarekin. Elena Olartua, zehazki, Aldarte elkartekoa eta Eraberean Sarearen batzorde juridikoko kidea da.

Bere hitzaldia “Orientazio afektibo-sexuala, genero-identitatea edo -adierazpena eta ezaugarri sexualak” izeneko izan zen, eta hitzaldiaren ardatza hau izan zen: Eraberean Sareak nola heltzen dituen LGBTBI begiradaren kasuak, alegia, LGBTBI kolektiboarekin lotutakoak.

Gai hauek landu ziren: auzi estrategikoa, biktimaren itxaropenak aintzat hartzearen garrantzia (bide judiziala eta bitartekaritzaren garrantzia), LGBTIfobiaren biktimen ezaugarriak, LGBTIfobiaren kasuak antzemateko zailtasunak eta Sarearen erronkak etorkizunera begira.

■ **“Aniztasuna eta diskriminazio anizkoitza: hurbilketa interseksionala” izeneko jardunaldiak**

Biltzenek eta Ikuspegik urtero antolatzen dituzten jardunaldiak dira. Bilbon egin ziren urriaren 19 eta 20an, modu presentzian eta on line.

Elena Olartuak, Aldarte antenakoak, Eraberean Sarearen izenean parte hartu zuen jardunaldietan, “Diskriminazioaren bizipena eta neurria: gizartearen esperientziaren eta esperientzia akademikoaren arteko elkarrizketa” izeneko mahai-inguruan parte hartuz.

Bertan, Eraberean Sareak ematen duen zerbitzua eta bere lan-ildoak aurkeztu ziren: biktimei arreta ematea, sentsibilizazioa eta prestakuntza, gizarte-eragina eta komunikazioa). Horrez gain, lan koordinatua egitearen garrantzia aztertu

zen, eta sarean lan egitearena beste arlo batzuekin, unibertsitatearekin, esate baterako, datuak eskuratzeko (ikerketak). Halaber, Eraberean Sarearen hurbilketa interseksionalaren garrantzia ere agerian utzi zen, hiru begiradei eta biktimen arretari dagokienez (hurbilketa soziala).

X. Jardunaldiak: Immigrazioa eta Integrazioa Euskadin

BEHIN BETIKO EGITARAUA – X. Jardunaldiak: Immigrazioa eta Integrazioa Euskadin

ANIZTASUNA ETA DISKRIMINAZIO ANIZKOITZA: HURBILKETA INTERSEKZIONALA

2020ko urriaren 19-20 – Bizkaia Aretoa, Bilbo & ERA BIRTUALEAN



ANTOLATZAILAK



ZUZENDARITZA TEKNIKOA



19 URRIA ASTELEHENA

9:30-10:00

Jardunaldien aurkezpena

Irekiera

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, Eusko

Jaurlaritzak

Patxi Juaristi, Bizkaiko Campuseko errektoreordea, UPV/EHU

Ongietorria

Julia Shershneva, ikuspegioko zuzendaria

Javier Pérez, Biltzeneko zuzendaria

10:00-11:00

Diskriminazio anizkoitza eta ikuspegi interseksionala

Miguel Laparra, Nafarroako Unibertsitate Publikoa

11:00-12:00

Aniztasuna eta diskriminazioa Euskadin: diskriminazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak

(En euskiera. *doce de agua* la traducción simultánea)

Iraide Fernández, ikuspegi

12:00-12:30 Atsedenaldia

12:30-14:00

Mahai-ingurua. Vivir y medir la discriminación: un diálogo entre la experiencia social y la académica

Elena Olaortua, Red Eraberean

Jokin Azpiroz, SIMREF

Teresa Sordé, CREA, Universitat Autònoma de Barcelona

Miriam Hattibi, Escritora y activista

18:00-20:00

Mahai-ingurua. Pandemiak berdinak egiten gaitu?

Diskriminazioa COVID-19ren garaian

Lucía Merino, Hirugarren Sektore Sozialako Euskal Behatokia

Marifé Rodríguez, Consejo Estatal del Pueblo Gitano

Yolanda González-Rábago, OPIK (UPV/EHU)

Santos Arrieta, Munduko Medikuek

Moderatzailea: Xabier Madariaga, Kazetaria

Non: Arrupe Etxeko Ekitaldi Aretoa

Aita Lojendio Kalea, 2 – Bilbo

Jardunaldiak birtualdi jarraitu eta hiletan zuzenean parte hartzeko:
<https://labur.eus/x231e>

20 URRIA ASTEARTEA

9:30-11:00

Mahai-ingurua. Haurtzarora eta nerabezara: jokabide diskriminatzaileen aurreko gakoak

Charo Arranz, Save the Children Euskadi

Unai Amezaga, Getxoko Udala

Kepa Torrealdea, Zeuk esan

Bea Sever, Naizen Elkartea

11:00-12:30

Mahai-ingurua. Diskriminazio anizkoitza autonomia

pertsonaleko eta gizarteratzeko prozesuetan

Virginia Cid, CEAR-Euskadi

Juan Daniel Ugalde, Observatorio para el Análisis y Visibilidad

de la Exclusión Social - Rey Juan Carlos Unibertsitatea

MP Carmen Cortés, Secretariado Gitano Fundazioa

Claudia Favela, Babelgo Dorrea, Ellacuría Fundazioa

12:30-13:00 Atsedenaldia

13:00-14:15

Mahai-ingurua. Adinekoen aniztasunarekiko arreta

Pili Castro, Cáritas Bizkaia eta Deustuko Unibertsitatea

Ángel Heredia, Granadako Unibertsitatea

Antonio Campos, Helduak Adi!

Pura Díaz-Veiga, Matia Fundazioa

14:15-14:30

Jardunaldien bukaera

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila,

Eusko Jaurlaritzak

Izena ematea

Jardunaldietara astelehen eta astearte goizean joateko lekua beteta dago.

Astelehen arratsaldean Arrupe Etxean egingo den saiora joateko, bete formulario hau: <https://labur.eus/CmQ8D>

Aretoaren tamaina dela eta, izen-emate ordena jarraituko da.

Sare-sozialetan hurrengo hashtag-a erabili dezakezu: **#10J**

■ “Aniztasunaren polizia-kudeaketa” prestakuntza-saioa

“Aniztasunaren polizia-kudeaketa” prestakuntza-programa 2017an hasi eta 2018an burutu zen. Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren ekimenez abiarazitako programa zen, Ertzaintzaren Zuzendaritzarekin elkarlanean. (Programaren xehetasunak luze eta zabal azalduta daude urte horietako Sarearen jardunaren txostenetan).

Programaren helburua, labur bilduta, hau zen: polizia-jardueretan tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa indartzea, eta poliziakideek egiten duten lanean aniztasunaren ikuspegia txertatzea.

Ildo beretik egin zen 2020ko otsailean prestakuntza-saio hori, sei ordukoa.

Prestakuntza GaylesPolek (Aniztasun sexuala kudeatzeko polizia-elkartea) eta Gehituk (Eraberean Sarearen antena) elkarlanean eman zuten eta bertan 25 lagunek parte hartu zuten.

■ Jantzideiak saioa, CEAR-Euskadik antolatuta.

Gogoan izan behar da 2019ko azaroaren 6an, Gasteizko Artium museoan, Ausartak solasaldia egin zela, CEAR-Euskadiren ardurapean. Saio horretan Jantzideiak liburuaren aurkezpena eta “belo islamikoaren eta diskriminazioaren”⁵ inguruko solasaldia egin ziren.

2020an aurreikusita zegoen Ausartak izenpeko beste saio bat egitea, Jantzideiak ekimena barnean hartuko zuena. Eraberean Sarearen ekintza bat zen, Tratu-berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko II. Euskal Kongresuaren testuinguruan kokatua.

5 Informazio gehigarria Sarearen jarduerari buruzko 2019ko txostenean

Saio hori maiatzaren 20rako programatuta zegoen, Bilboko Azkuna Zentroan, eta bertan Jantzideiak moda-desfilea burutuko zen. Baina egoera sanitarioa zela eta, kongresuarekin gertatu zen bezala, lehenengo urrira atzeratu zen eta, azkenean, bertan behera utzi behar izan zen.

Ekimena, bere horretan, ezin izan zen burutu, baina Gasteizko Emakumeen Etxeak tailer bat antolatu zuen bertakoentzat, 2020ko irailean. Oraingoan, Jantzideiak liburua aurkeztu zen eta mahai-inguru batean gaiaren inguruko solasaldia burutu zen, CEAR Euskadik dinamizatuta.

Eraberean Sarearen 2020ko jardunari buruzko kapitulu hau bukatzeko, ezin dugu aipatu gabe utzi behar **Tratu-berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko II. Euskal Kongresuaren inguruan egindako prestaketak-lanak.**

Kongresua, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak antolatuta, Eraberean Sarearen ekimenez, 2020ko maiatzarako programatuta zegoen. Gerora, pandemiak sortutako egoera sanitarioa zela eta, kongresua urrira atzeratu zen eta, azkenean, bertan behera utzi behar izan zen.

Hori gertatu aurretik, hala ere, kongresua antolatzeko eratu zen batzorde teknikoak, Biltzenen laguntza teknikoarekin eta, besteak beste, Eraberean Sarearen partaidetzarekin, kongresuaren hainbat konturekin lotutako erabakiak hartuak zituen, alegia, diseinuarekin, edukiarekin, hizlarien hautaketarekin eta beste.

Lan horrek ere ez zuen emaitzarik izan 2020an, COVID-19ak sortutako egoera sanitarioak erabat baldintzatutako urtea.

2. lan-ardatza: Arreta, Aholkularitza eta Laguntza

Lan-ardatz hau diskriminaziozko tratu edo gertakari baten biktimatzat, edo arraza-, etnia- edo nazio-jatorriak, sexu-orientazio edo -identitateak eta genero-identitateak eragindako gorroto-delitu baten biktimatzat har daitezkeen pertsonak edo taldeak zuzenean artatzeari dagokio.

Laneko ardatz honen barruan uztartzen dira, alde batetik, Arreta, Aholkularitza eta Laguntza Batzordeak egindako lana eta, bestetik, diskriminazio-kasuak izan daitezkeenak detektatzeko eta tratatzeko orduan antenek egindako lana.

— Arreta, Aholkularitza eta Laguntza Batzordea

Batzordeak, organo juridiko espezializatua den aldetik, antenei laguntza ematen die tratatzen dituzten diskriminazio-kasuen kudeaketa teknikoa eta juridikoa egiteko.

2020an ere, Batzordeak aurreko urteetako funtzio eta jarduerak egin ditu: kasuak aztertu eta jarraitu beharreko estrategia juridikoak proposatu; estrategikoak izan daitezkeenak identifikatu; arreta juridikoa hobetzeko proposamenak egin; TBDE arloan espezializatutako dokumentazio juridikoa helarazi; prestakuntza juridikoko proposamenak egin, eta prestatzaile gisa parte hartu barneko eta kanpoko prestakuntza-ekintzetan.

— Antenas: detección y atención de posibles casos de discriminación

Antenek diskriminaziozko gertakariak **detektatzen** dituzte eta **zuzeneko arreta** ematen diete diskriminaziozko tratu edo gorrotozko delitu baten biktima izan daitezkeen pertsona edo kolektiboak.

2020an ere, antenek arreta-zerbitzu hau eman dute. Artatutako kasuei buruzko informazioa, ohikoa den moduan, Eraberean Sarearen aplikazio informatikoan jaso da; aplikazio horrek, hain zuzen, erabateko konfidentzialtasuna bermatzen du datu pertsonalak babesteari dagokionez, eta sarbide mugatua dauka.


2020an ARTATUTAKO KASUEI BURUZKO DATU NAGUSIAK

Joan den 2020. urtean pandemiaren testuingurua izan den egoera berezia kontuan hartuta, hurrengo ataletan Eraberean Sareak 2020an artatutako kasuen inguruko datu esanguratsuenak eta datu horien analisia eskaintzen dira.


Edukia arintzeko asmoz, datu horiek modu grafikoan aurkezten dira, grafiko edo taula bakoitzaren azalpen laburrarekin batera, zenbaki hutsei esanahia eskaintzeko.

Artatutako kasuak, guztira:

2020an, Eraberean Sareak 63 kasu artatu zituen, eta horietatik ia % 80 (% 79,36 zehazkiago) modu ekitatiboan banatu ziren Araba eta Bizkaiko lurraldeen artean (% 39,68 hurrenez hurren). Gipuzkoan kasu gutxiago salatu ziren, Lurralde Historiko horretan jasotako kasuak guztien % 22 izan ziren (13 zenbaki absolutuetan).

1. grafikoa. Artatutako kasuak Lurralde Historikoaren arabera (2020)**INFORMAZIO SOZIODEMOGRAFIKOA****Artatutako pertsonen profila:**


Eraberean Sarean artatutako pertsonen adin-profilari begiratuta, gehienak 18 eta 40 urte bitartekoak direla ikusten dugu (% 83). Gutxiago dira 41 eta 50 urte bitarteko pertsonak (% 14,54), eta gainerako kategorietan presentzia gutxienezkoa da (kasu bat 0-17, 51-60 eta 60 urtetik gorako kategorietan, hurrenez hurren).

2. grafikoa Eraberean Sareak artatutako pertsonen adina (2020)⁶

Eraberean Sarera diskriminazio-egoerak salatzeko jo duten pertsonen sexuari dagokionez, erdiak baino gehiago (% 54) emakumeak izan zirela diote datuek. Gizonek heren bat baino gehiago (% 38) izan ziren eta 10 pertsonatik bat inguru (% 8) sexu ez-bitarrekoak.

⁶ Artatutako kasuak: 58. Erantzun gabekoak: 5.

3. grafikoa Eraberean Sareak artatutako pertsonen sexua (2020)



Sexua eta adina aldagaien konbinazioari erreparatuta, honako emaitza hau ikusiko dugu:

1. taula. Eraberean Sareak artatutako pertsonen adina/sexua aldagaiak gurutzatuta (2020) ⁷

	0-17	18-30	31-40	41-50	51-60	61tik gora	Guztira
Gizona	0	10 (% 55,5)	5 (% 27,8)	2 (% 11,2)	1 (% 5,5)	0	18 (% 100)
Emakumea	1 (% 3,57)	7 (% 25)	14 (% 50,0)	5 (% 17,85)	0	1 (% 3,57)	28 (% 100)
Ez bitarra	0	4 (% 80)	0	1 (% 20)	0	0	5 (% 100)

2. taulan jasotako datuen arabera, ezberdintasun batzuk ikus daitezke gizonen eta emakumeen adin-profilean: gizonen kasuan, pertsona gehienak (% 55) 18

⁷ Artatutako kasuak: 51. Erantzun gabekoak: 12.

eta 30 urte bitartekoak dira; emakumeen kasuan, berriz, gehienak (% 50) 31 eta 40 urte artekoak. Sexu ez-bitarreko pertsonen kasuan, gehienak (% 80) 18 eta 30 urte bitarteko kategorian daude.

Horrek profil gazte bati buruz ari garela adierazten du bi kasuetan, baina berezitasun batzuekin: 18 eta 40 urte bitarteko adin-profila izateko joera orokorra izan arren, muturretan dauden pertsona batzuk ere badaude (0-17 emakumeen kasuan eta 51-60 gizonenean), eta hori diskriminazio zabal eta askotarikoaren adierazle bat izan daiteke adinari dagokionez.


Diskriminazioa, zeharkako fenomeno.

Aurreko urteko txostenean jaso zen bezala, Eraberean Sareak diskriminazioa gero eta profil desberdinagoei eragiten dien fenomeno negatibo bat dela identifikatu egin du. Horrela, 2019an diskriminazio-tarte berriei buruz identifikatutako joera errepikatu egiten da bullyingarekin eta eskola-jazarpenarekin lotuta dagoen adingabe baten kasu batekin, termino arrazista eta xenofoboetan.

Adineko pertsonen kasuan (51 urte edo gehiagokoak), lehenengo kasuan (51 eta 60 urte bitarteko pertsona) diskriminazioa etnia eta arraza arrazoiengatik gertatzen da etxebizitza bat eskuratzeko orduan; bigarrenen (60 urtetik gorako pertsonakoa), berriz, ikusten da bere sexu-izaeragatik bizitzan zehar bizi izan duen diskriminazioak eragina izan duela bere eguneroko bizitzan eta beste pertsonetikiko harremanetan.

Artatutako kasuak begiraden arabera (Immigrazioa, Ijito Herria, LGTBI):

Begiradei dagokienez, hurrengo grafikoan ikus dezakegu Eraberean Sareak 2020an jasotako kasuen erdiak baino gehiago immigrazioaren eremuari atxikitzen zaizkiola (% 51), LGTBI begiradari dagozkionak (% 30) eta Ijito Herriarekin lotutakoak (% 19).


4. grafikoa. Artatutako kasuak begiraden arabera (2020)

Laburbilduz, ondoriozta daiteke artatutako kasuen erdiek baino gehiagok balizko arrazakeria edo xenofobia egoerak aipatzen zituztela. Horietako heren bat inguru askatasun sexuafektiboa eta 10etik bik ijitoen aurkako egoerak. Begirada bakoitzeko kasuen banaketa 2019koaren antzekoa da (% 47,7 immigrazioa; % 29,2 LGTBI kolektiboan eta % 23,1 Ijito-herriari dagokionez).

Diskriminazio-zantzuak:

2020an zehar jasotako datuen arabera, Eraberean Sareak artatutako kasuen % 80k baino gehiagok diskriminazio motaren bat erakutsi zuten (zuzenekoa, zeharkakoa, asoziazioagatik, diskriminazio-agindua, akatsagatik diskriminazioa).

5. grafikoa. Diskriminazio-zantzuak 2020an artatutako kasuetan.



Datu horiek Sarearen antenek ordezkatzten dituzten kolektiboen pertsonetikiko jarrera diskriminatzaileak daudela erakutsi dute (pertsona migratuak, ijitoak eta LGTBI kolektibokoak). Honi buruz hitz egingo da datozen ataletan.

Datu horiek aipatzean, kontuan hartu behar dugu, halaber, **gutxiespenaren** eragina; izan ere, fenomeno horren ondorioz, pertsona batzuek ez dute


diskriminazio egoerarik salatzen, hainbat arrazoiengatik: mendekuari beldur direlako, mesfidantzagatik, berriz biktimizatzeko beldur direlako, xede horretarako erabil daitezkeen mekanismoak ezagutzen ez dituztelako.

Horrek guztiak errealitate konplexu baten aurrean jartzen gaitu, non diskriminazioa eta desberdintasuna aztertzea beharrezkoa bezain konplexua den.

Diskriminazio-zantzuak begiraden arabera:

2020ko datuek hau berresten dute: Eraberean Sarearen begiradak osatzen dituzten kolektibo guztiek (Immigrazioa, Ijito Herria eta LGTBI kolektiboa) diskriminazio-zantzu garrantzitsuak zituzten kasuak salatu dituztela, neurri handiagoan edo txikiagoan.

6. grafikoa. Diskriminazio-zantzuak begiraden arabera (2020)⁸



8 Artatutako kasuak: 46. Erantzun gabekoak: 17.


Horietako bakoitzaren kasu zehatza aztertuz gero, ikusten da diskriminaziozantzu horiek gehiago agertzen direla atzerriko jatorrizko biztanleen kasuan (% 93,3) eta LGTBI kolektiboan (% 86,6) ijito herriaren kasuan baino (kasuen % 70).

Kasuaren hasiera:

Sarean salatutako kasuaren hasieran arreta jarrita, hurrengo grafikoak erakusten du kasuen % 85 eragindako pertsonak eskatuta hasi zirela, hau da, diskriminazio-gertaera jasaten ari zen pertsonaren eskaeraz.

10 kasutatik batean inguru (% 13,3) Eraberean Sarearen ekimenez hasi zen prozedura, eta kopuru txiki batean (% 1,7), berriz, hirugarren pertsona batek salatuta edo jakinarazita, gehienetan, gertakarien lekuko izandakoa.

7. grafikoa. Kasuaren hasiera (2020)




Joera hori ez dator bat aurreko urtean bildutakoarekin; izan ere, Sarean jasotako kasuen % 30 inguru eragindako pertsonen borondateaz hasi ziren. Datu horiek adieraz dezakete gaitasun handiagoa dagoela, biktimen aldetik, diskriminazio-egoerak identifikatzeko, eta azpimarratzekoa da Eraberean Sareak laguntza gisa duen zeregina jasotako kasuetan.

Gainera, pandemiaren hasierak eta horren ondoriozko neurriek (etxeko konfinamendua, mugikortasuna murriztuta, administrazioarekiko harreman telematikoa garatzea eta sustatzea) ikuspegi kritikoa piztu dute desabantaila egoeratik abiatzen ziren pertsona eta talde batzuetan.

Kasuaren hasiera begiraden arabera:

Aztertutako begiradaren arabera, honako hau ikus dezakegu:

8. grafikoa. Kasuaren hasiera begiraden arabera (2020)



Sarearen ekimenez irekitako kasu gehienak atzeritar jatorrizko biztanleei dagozkie (% 62,5), eta ondoren LGTBI kolektiboari lotutakoak, Ijito Herriaren eremuan Saretik identifikatutako kasurik gabe.

Beren eskariz irekitako kasu guztietatik, ia erdiak (% 49) immigrazioaren begiradan kokatzen ziren, heren bat inguru (% 31,4) LGTBI kolektiboan, eta 10etik bi inguru (% 19,6) Ijito Herriarekin.


Garrantzitsua da hirugarren pertsona batek eskatuta hasitako kasu guztiak Ijito Herriaren begiradari dagozkiola azpimarratzea, eta horrek kolektibo horrengan garatutako diskriminazio-tratuaren inguruan kontzientzia kolektibo handiagoa izatea adierazi dezakeela.

2019. urtearekin konparatuz, Sareak kasu gehiago ireki ditu bere ekimenez (% 52,6 immigrazioaren eremuan eta % 21,1 LGTBI kolektiboan, hurrenez hurren), baina ez du ireki bere ekimenez Ijito Herriarekin lotutako kasu bat bera ere.

Protagonistak berak eskatuta irekitako kasuen kopuruak gora egin du atzerriko jatorrizko pertsonen kasuan (+% 11,2 2019. urtearekin konparatuz), baina beherakada izan da LGTBI eta Ijito Herriko kolektiboen kasuetan (-% 7,4 eta -% 4,7, hurrenez hurren).

Artatutako pertsonen jatorrizko eremu geografikoa:

Eraberean Sarearekin beren diskriminazio-egoerak salatzeke harremanetan jarri diren pertsonen jatorrizko eremu geografikoa aztertuta, honako banaketa hau ikus dezakegu:

9. grafikoa. Artatutako pertsonen jatorrizko eremu geografikoa (2020)

Salatzaileen⁹ erdiak baino gehiago (% 55) Espainiakoak dira, eta ondoren latinoamerikakoak (% 18) eta magrebiarrak (% 16).


Afrika beltzeko (% 8) eta Asiako (% 3) pertsonak gutxiago dira eta horietan jatorrizko herrialde nagusiak Mongolia eta Siria dira.

Datu horiek ez datoz bat aurreko urtearekin; izan ere, Espainiako jatorrizko (-% 7,3 2020an) eta Asiako (-% 1,9) pertsonen presentzia handiagoa identifikatu zen. Kontrako kasuan, presentzia murriztu duten jatorriak daude, latinoamerikarra (+6,5), magrebiarra (+1,2) edo Saharaz hegoaldeko Afrikari dagokiona (+% 3,1).

⁹ "Salatzaile" hitza ez dago legezko konnotazioarekin erabilia. Salatzaileei buruz hitz egitean, Eraberean Sarearekin beren egoera partekatu duten eta Sareari laguntza eskatu dioten pertsonen buruz ari gara.

Artatutako pertsonen jatorrizko eremu geografikoa, begiraden arabera:

10. grafikoa. Artatutako pertsonen jatorrizko eremu geografikoa, begiraden arabera (% , 2020)



2. taula. Jatorrizko eremu geografikoa begiraden arabera (2020) ¹⁰

	Immigrazioa	Ijito Herria	LGTBI
Espainia	8 (% 25)	11 (% 100)	15 (% 78,94)
Latinoamerika	9 (% 28,125)	0	2 (% 10,52)
Asia	2 (% 6,25)	0	0
Afrika beltza	5 (% 15,62)	0	0
Magreb	8 (% 25)	0	2 (% 10,52)
Guztira	32 (% 100)	11 (% 100)	19 (% 100)

10 Artatutako kasuak: 62. Erantzun gabekoak: 1.

Immigrazio esparruaren barne dauden pertsonen kasuan, gehienak (% 28) Latinoamerikako herrialde batekoak dira. Magreb-etik (% 25) eta Espainiako Estatutik etorritako pertsonen presentzia ere nabarmena da, eta kasu horietan islamofobiak eragindako diskriminazioa gerta daiteke, atzerritar jatorrizko baina nazionalitate espainiarra duten pertsonetikiko. Horrek aldaketa txiki bat adierazten du aurreko urtearekin konparatuz (2019), non jatorri ohikoena magrebiarra (% 25,9) izan zen eta ondoren latinoamerikarra (% 18,5).

Gutxiago dira Saharaz hegoaldeko Afrikatik (% 15,62) eta Asiatik (% 6,25) etorritako pertsonak, 2019an gertatu zen bezala (% 11,1eko eta % 7,4ko balioak, hurrenez hurren).

Ijito Herriari dagokionez, ikus dezakegu kasu guztiak Espainiako ijitoenak direla. Ez da jaso nazio-lurraldetik kanpoko ijitoen kasurik; iaz, berriz, horiek Ijito Herriaren kasu guztien % 6,7 izan ziren.

Azkenik, LGTBI kolektiboak presentzia nabarmena du lurralde nazionaletik etorritako pertsonen kasuan (% 78,94), eta askoz ere balio txikiagoak ditu beste eremu batzuetan, hala nola Latinoamerikan eta Magreben (% 10,52 bi kasuetan). Begirada horrek ez du aldaketa esanguratsurik erakusten jarraibidean, aurreko urtearekin alderatuta.

Etxeko konfinamendua, tentsio-iturria.

Etxebizitzaren merkatua da, berriz ere, diskriminazio eszenatoki nagusienetariko bat. Hala, salaketa jarri duen pertsona batek baino gehiagok adierazi du etnia eta arrazaren aldetik duen jatorria edo bere arrazagatik, mugatu egin zaiola informazioa jasotzeko edo etxebizitza bat eskuratzeko eskubidea (alokairu edo jabetza erregimenean).

Era berean, bizikidetzaren ondoriozko tentsioak nabarmentzen dira; batez ere, etxeko konfinamenduaren ondorioz, etxean ordu gehiago eman behar izan dira, eta, zenbaitetan, diskriminazioak eta mesfidantzak markatutako egoera batetik abiatzen diren pertsonak eta kolektiboak auzo-harremanetan gehiago egon behar izan dute.

Artatutako kasuak jatorrizko herrialdearen arabera:

Eraberean Sarean 2020an diskriminazio-egoerak salatu dituzten pertsonak zein herrialdetatik datozen aztertuz, Espainiaz gain (34 kasu) herrialde garrantzitsuena Maroko dela (10 kasurekin) ikus dezakegu. Datu horiek 2019ko joerari jarraipena ematen diote; izan ere, Espainia eta Maroko izan ziren diskriminazioaren biktimen jatorrizko herrialde nagusiak (38 eta 9 kasu, hurrenez hurren).

Gutxiago dira Kolonbiatik (5 kasu) eta Brasiletik (3 kasu) etorritakoak. Kopuru txikiago batean Bolivia, Kamerun, Boli Kosta, Mongolia, Nikaragua, Nigeria, Paraguai, Senegal, Siria eta Somalia daude.

3. taula. Artatutako kasuak jatorrizko herrialdearen arabera (2020) ¹¹

JATORRIZKO HERRIALDEA			
Bolivia	1	Mongolia	1
Brasil	3	Nikaragua	1
Kamerun	1	Nigeria	1
Kolonbia	5	Paraguai	1
Boli Kosta	1	Senegal	1
Espainia	34	Siria	1
Maroko	10	Somalia	1
GUZTIRA			62

¹¹ Artatutako kasuak: 62. Erantzun gabekoak: 1.


PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA BEGIRADEN ARABERA

Immigrazioa

Hurrengo grafikoaren datuen arabera, Eraberean Sarera diskriminazio-egoera bat jakinarazteko bertaratutako atzerriko jatorrizko pertsonaren profila 18-41 urteko gizon batena dela ondorioztatu dezakegu (begirada horretako kasuen % 62).

Horrek aldatu egiten du 2019an jasotako profilaren ikuspegia, non sexuen arteko banaketa parekatuagoa zen (% 40 izan ziren 31 eta 40 urte bitarteko emakumeak eta 18 eta 30 urte bitarteko gizonak). Hala eta guztiz ere, adin-profil gazte horrek baieztatu egiten du, immigrazioaren eremuan, diskriminazioa gazteen artean gertatzen dela, izan ere, gazteen migrazio-prozesuaren ezaugarri nagusia "lan-adina" izatea da (18 eta 50 urte bitartean, batez ere).


11. grafikoa. Biktimen profil soziodemografikoa (Immigrazioa, 2020).



Immigrazioaren kasuan, 2020an diskriminazioak banakako eta taldeko eragina izan zuen. Hau da, artatutako kasuen banaketak ia neurri berean eragiten zien pertsonari eta talde edo kolektiboari.

Horrela, 2020an zehar pertsona bakar batengan eragina izan zuten kasuak (protagonistek berek edo lekukoek salatutakoak) % 55 ziren, eta taldekakoak, berriz, kasu guztien % 45.

12. grafikoa. Diskriminazio-kasuak, eragindako pertsona kopuruaren arabera (Immigrazioa, 2020).



Atzerriko jatorrizko biztanleak eta bizitegi-diskriminazioa.


Aplikazioan jasotako datuen arabera, 2020an zehar atzeritar jatorrizko biztanleei tratu diskriminatzailea eman zaie etxebizitzaren arloan, besteak beste. Alde horretatik, nabarmentzekoa da kolektibo horretako pertsonen tratu desberdina jasotzen dutela higiezin agentziekin tratatzean.

Kasu zehatz batean, pisu baten jabeak atzeritar jatorrizko pertsonen egiten dizkien iruzkin arrazista eta xenofoboak salatzen dira, atzeritar izateagatik alokatzeari uko egiten die eta.

Ijito Herria

Ijito Herriari dagokionez, aipatu behar da profil nagusia 18-30 urteko pertsona ez-bitarrarena dela, eta horrek agerian uzten du kolektibo desberdinen arteko diskriminazio-moduen zeharkakotasuna. Kasu honetan, diskriminazio horrek lotura zuzena du forma afektibo-sexual berriekin.


Kolektibo horren ostean, 31 eta 40 urte bitarteko emakumeak daude eta arazoak dituzte, batez ere, etxebizitzaren esparruarekin eta etxebizitza eskuratzeko eta gozatzeko diskriminazioarekin.

13. grafikoa. Biktimen profil soziodemografikoa (Ijito Herria, 2020)

Ijito Herriaren kasuan, diskriminazio-kasuak pertsonei bideratuta egon ohi dira, halako osagai kolektiborik islatu gabe. Horrela erakusten dute datuek: Eraberean Sareak Ijito Herriaren inguruan 2020an jasotako kasu guztietatik, % 70 inguruk pertsona bakar bati eragiten dio.

Horren arrazoia izan daiteke, batzuetan, diskriminazioaren biktima diren pertsonek jarrera horiek naturalizatzeko joera izaten dutela, eta normalizat hartzen dutela bizitzako edo espazio publikoko hainbat esparrutan egiten duten egonaldiarekiko mesfidantza edo zaintza.

14. grafikoa. Diskriminazio-kasuak, eragindako pertsona kopuruaren arabera (Ijito Herria, 2020)



Zurrunurruak, pandemiaren albo-ondorioak.


Koronabirusak ijitoen etniaren inguruko zurrunurruak eta estereotipoak zabaltzea ekarri du. Hala, birusa Euskadira ailegatzea zuzenean ijito etniako biztanleekin lotu zen, Gasteizko hileta batera masiboki joateagatik, argi eta garbi, saihestezina zen egoera baten hasiera izan zela argudiatuz.

LGTBI kolektiboa

2020an Eraberean Sarera diskriminazio-egoeraren bat salatzeko jo zuten LGTBI kolektiboko pertsona guztiak emakumeak ziren. Adinari dagokionez, horien erdiak inguru 31 eta 40 urte bitartekoak ziren.

Profil horri hurrengoa gehitzen badiogu – hau da, 18 eta 30 urte bitarteko emakumeei dagokiena–, iaz LGTBI kolektiboan jasotako kasuen % 84ri buruz ari gara, eta horrek agerian uzten du kolektibo horren zaurgarritasun-profila: emakume gazteak dira zaurgarritasun maila handiagoa erakusten dutenak eta egoera eta praktika diskriminatzaileekiko esposizio handiagoa erakusten dutenak.


15. grafikoa. Biktimen profil soziodemografikoa (LGTBI, 2020)



Diskriminazio egoeren irismen mailari dagokionez, kolektibitateak berriro ere garrantzia hartzen duela. Gainontzeko errealitateen kasuetan gertatu den bezala, LGTBI kolektiboaren kasuan, salatutako egoerek % 73an kolektibo bati edo pertsona batzuei eragiten zieten aldi berean.

Kasu horiei laguntzean jasotako lekukotasunen arabera, pentsa daiteke gogoeta horren arrazoia dela, askotan, salatzailaren inguruneak (familiak, lagunak) egoera horiek ikusi eta bizi dituela, eta, azkenean, egoera horien zeharkako biktima direla.

16. grafikoa. Diskriminazio-kasuak, eragindako pertsona kopuruaren arabera (LGTBI, 2020).



Nabarmentzekoa da profilaren homogeneousazioa aurreko urtearekin konparatuta: 2019an LGBTI kolektiboko biktimen profila anitzagoa zen (gizon eta emakume gazteak, batez ere), baina 2020an emakumeak izan dira diskriminazioaren biktima nagusiak.

Gai horrek, gainera, lotura argia erakusten du trans pertsonen errealitatearekin; izan ere, pertsona horiek hainbat mailatan (espazio publikoetan, aisialdirako lokaletan edo interneten) diskriminazio-diskurtso eta -praktiken helburu izaten dira.

Trans pertsonak, biktimak hainbat eremutan.

Transexualak dira 2020 jasotako kasuetan tratu desberdin eta diskriminatzaileak gehien jaso izan duen kolektiboetako bat 2020an jasotako kasuetan, batez ere beren deadnamearekin lotuta, hau da, trantsizio-prozesuaren aurretik zuten izena. Ildo beretik helduta, nabarmentzekoa da emakumeen kasua, beren izena duten ikastaroetan matrikulatzeko aukera zailtzen baitzaie, beren prestakuntza egiaztatzen duten agiriekin beste izen bat dutela argudiatuz.


Hori oztopo eta shock bat da pertsona horientzat, beren nortasunari uko egiten baitiote.

DISKRIMINAZIO-EREMUAK

Diskriminazio-mota:


2020an jasotako kasu gehienak (% 86) zuzeneko diskriminazio-kasuak izan dira, hau da, pertsona edo kolektibo batekiko tratu desberdina sustatzen duten jarrerak edo egoerak, haien ezaugarri bereziengatik (sexua, adina, erlijioa, sinesmenak, klase soziala).

17. grafikoa. Diskriminazio-mota (2020)



Gainerako % 14a zeharkako diskriminazioa izan da, hau da, itxuraz neutroak diren arau edo praktika batek pertsona bat desabantaila-egoeran jartzen duenean sortzen dena, ezaugarri desberdinengatik.

Datuek erakusten dutenez, diskriminazio-jarduerek presentzialtasun osagai handia dute; hau da, beste pertsona eta talde batzuekiko berehalako harremanean sortzen diren ekintzak edo jarrerak dira, eta ez hainbeste nahi ez diren edo aurreikusi ez diren ondorioak.

Diskriminazio-eremua:**18. grafikoa.** Diskriminazio-eremua (2020)

2020an Sareko txostena osatu dituzten 63 kasuetan, bien arteko banaketa ia bikotekidea da (% 56 eremu pribatuan eta % 44 publikoan). 2019ko txosteneko datuekin alderatuta, ikusten da eremu publikoak presentzia handiagoa izan duela (+% 3,1 urtetik urtera), oro har, osasun-sistemaren edo hezkuntza-sistemaren gisako zerbitzu publikoetako eskubideen urraketarekin eta tratu desberdinarekin lotuta.

Praktika edo egoera diskriminatzaile horiek gertatu diren arlo espezifikoak aztertuz, ikusten da eremu publikoan eta pribatuan errealitatea honako hau dela:

4 eta 5. taulak. Diskriminazioa zer arlotan gertatu den (2020)

Eremu publikoa	(%)
Segurtasun indar eta Kidegoak	22,7
Osasuna	18,2
Hezkuntza	13,6
Gune publikoak	9,1
Enplegua	9,1
Gizarte Zerbitzuak	9,1
Etxebizitza	9,1
Komunikazioa eta internet	4,5
Beste	4,5

Eremu pribatua	(%)
Etxebizitza	23,3
Beste	22,6
Enplegua	12,9
Hezkuntza	9,7
Aisialdia	9,7
Banketxea	9,7
Osasuna	3,2

Arlo publikoan, segurtasun indar eta kidegoek izan dute diskriminazio egoerarik handiena (kasuen % 22,7). Horren ondoren, osasunaren esparruan 10 pertsonatik 2k (% 18,2) diskriminazio-egoera gisa identifikatu dute, eta hezkuntza (% 13,6) hirugarren eremutzat hartzen da.

Gainera, bide publikoa, enplegua, gizarte-zerbitzuak edo etxebizitza dira diskriminazioa gehien agertzen den eremuak (% 9,1). Oro har, errealitate horiek erlazionatuta daude beste pertsona eta talde batzuekiko tratuarekin eta etxebizitzak edo enpleguak eskuratzeko desberdintasunarekin, hainbat arrazoiengatik. Gutxiago dira Internet edo beste espazio batzuk, (identifikatutako kasuen kopurua % 4,5koa da), eta horien hondar presentzia azaldu daiteke, neurri batean, tradizionalki tratu desberdineko egoerak identifikatzeko joera izan ez duten "espazio berriak" direlako.

Eremu pribatuan, etxebizitza da diskriminazio eremu nagusia (% 32,3). Orokorrean, gune horren ezaugarria da diskriminazioa dagoela alokairu edo erosketaren erregimeneko ondasun higiezinak eskuratzeko, baita diskriminazio-praktikak ere bizikidetzako auzo-harremanetan. Azken horiek egoera deserosoak

izan ohi dira salatzaileentzat, eta ohorerako eskubidearen aurkako iruzkinak egiten dituzte.

Horretaz aparte, enplegua da diskriminazio-egoerak gertatzen diren beste gune bat (% 12,9). Zehazkiago, egoera horiek lotura izan ohi dute bertara sartzeko arazoekin, baita pertsonen biktimekin duten harremanarekin ere, haien arraza edo sexua dela eta.

Beste eremu batzuk ere agertzen dira, hala nola banketxeak, lokalak eta aisialdirako guneak edo hezkuntza (% 9,7) diskriminazio-leku berri gisa, bai eta osasun pribatua ere kasuen % 3,2an.

Diskriminazioa, eremu publikoan eta pribatuan.

Egoitza-baliabideak dira, berriz ere, etnia- eta arraza-jatorriaren arabera kolektiboen arazo nagusietako bat. Hala, 2020an zehar, atzerriko jatorrizko pertsonekin edo Ijito Herrikoekin diskriminazio-printzipioak identifikatzen dituzten zenbait kasu aztertu egin dira.


Aipatzekoa da ijito familia batek egindako salaketa, etxeko fatxadan ijitoen aurkako leloek zituzten egindako pintadak agertu zirelako, baita atzerritarrek egindako salaketak ere, etxebizitzara sartzean jokabide arrazistak eta xenofoboak izan zituztelako. Oro har, horren ondorioz, etxebizitza bat alokatzeko edo erosteko zailtasun eta oztopo batzuk daude, batzuetan ezkutuagoak eta beste batzuetan nabarmenagoak – hala nola “immigranterik nahi ez dela” zehazten den kasuetan –.

Aitzitik, eremu pribatuan, banku-erakundeekin, higiezin-agentziekin edo lan-harremanekin lotutako zerbitzuak eskuratzeko diskriminazioa azpimarratzen da, pertsonak eta taldeak gerora sortutako ezegonkortasun- eta zaurgarritasun-egoeretara bultzatuz.

Diskriminazio-eremua begiraden arabera:

Hurrengo grafikoak begirada bakoitzeko diskriminazio-egoera nagusiak zein eremutan gertatu diren erakusten du:

19. grafikoa. Diskriminazio-eremua begiraden arabera (2020)



Immigrazioa eta LGTBI begiraden kasuei dagokienez, eremu pribatua da Eraberean Sarera jo zuten pertsonen diskriminazio-gune nagusia. Horrela defendatzen dute 2020an diskriminazio-egoerak salatu zituzten 10 pertsonatik 6k.


LGTBI kolektiboaren kasuan, nahiz eta kasu gehienak eremu pribatukoak ere izan, kopurua apur bat murriztu da (kasuen % 57,1), eta agerian geratu da diskriminazioak forma desberdinak hartzen dituela eta eremu desberdinei eragiten diela.

Ezberdintasun nagusia Ijito Herriaren begiradan bildutako pertsonen artean dago, eremu publikoa diskriminazio gune nagusitzat jotzen delako. Hala defendatzen dute 2020an beren egoera Eraberean Sarearekin partekatu zuten biktimen erdiak baino gehiagok (% 55,6).

Eremu publikoa

Eremu publikoan arreta jarrita, ikus dezakegu diskriminazio-kasuak gertatzen diren arlo nagusiak honako hauek direla:

20. grafikoa. Eremu publikoa: diskriminazio-arlo nagusiak (2020)




Diskriminazio-arlo nagusia Segurtasun Indar eta Kidegoekiko harremanen ingurukoa da (% 22,7), batez ere ausazkoak ez diren identifikazio-prozesuekin edo biktimekiko tratu diskriminatzailearekin lotuta.

Horren ostean, osasunaren esparruan bizi izan den diskriminazioa dago, oro har, osasun-sisteman pertsonetikiko tratuari eta harremanari dagokienez (% 18,2). Egoera horrek garrantzia hartzen du osasun-sistema pandemia-testuinguru nagusietako bat den egoera batean.

Antzera agertzen da hezkuntza-sistema zaugarritasunaren beste arlo bat bezala, ikaskuntza-prozesuetan praktika diskriminatzaileak izaten dituzten ikasleen gurasoei edo helduei tratu desberdina ematen zaiela adierazten duten lekukotasunekin (% 13,6).

Azkenik, balio eskasagoak dituzten beste eremu batzuk ere agertzen dira: etxebizitza (% 9,1), gizarte-zerbitzuak (% 9,1), enplegua (% 9,1), espazio publikoa (% 9,1), beste batzuk (% 4,5) eta komunikazioa eta Internet (% 4,5).

21. grafikoa. Eremu publikoa: diskriminazio-arlo nagusiak, begiraden arabera (2020)



Eremu publikoan, atzerriko jatorria duten pertsonen diskriminazio-eremu nagusia Segurtasun Indar eta Kidegoekiko harremana (% 27,3) eta osasun-eremua (% 18,2) dira. Lehenengo kasua etnia eta arraza arrazoiekin erlazionatzeko joera dago; bigarrenak, berriz, lotura izaten du jasotzen den tratuarekin, batez ere osasun-langileekin elkarrengatik zailtzen duten hizkuntza-arrazoiengatik.

Eremu publikoa, diskriminazio desberdinen eremua.

Eremu publikoaren barne, diskriminazioaren bi agertoki nagusi identifikatzen dira. Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzkoa eta osasunaren esparruari atxikitakoa.


Horrela, arraza-arrazoen identifikazioak Sareak 2020an jasotako salaketa nagusietako bat dira. Horrez gain, gaueko aisialdiko lokaletan sarbidea kontrolatzen duten langileek egindako diskriminazio jarduerak ere azpimarratzen dira, batez ere transfobiarekin erlazionatuta.

Illo horretan, emakume trans baten kasua nabarmentzen da, gaueko aisialdirako lokal batean sartzea galarazi baitzioten “arazorik nahi ez izateagatik”, trans pertsonak gatazkekin zuzenean lotuz eta haien diskriminazioa eta estigma sustatuz.

Eremu pribatua

Eremu pribatuaz hitz egitean, datu nagusiak honako hauek dira:

22. grafikoa. Eremu pribatua: diskriminazio-arlo nagusiak (2020)




Eremu pribatuaren barne, etxebizitza diskriminazio eremu nagusitzat hartzen dute Eraberean Sarean salaketa jarri duten 10 pertsonatik hiruk 2020an. Gai hori zuzenean lotuta dago alokairu edo erosketa erregimeneko etxebizitzak eskuratzearekin, baita auzo-harremanekin eta bizilagunen komunitatea osatzen duten pertsonetako interakzioarekin ere.

Enplegua ere bada diskriminazio gune nagusietako bat (% 12,9): lanpostu bat lortzeko momentuan pairatzen diren hamaika arrazoi salatzen dira, baita bere nagusienganako jasandako tratua ere.

Gutxiago dira beste esparru batzuk, hala nola hezkuntza, aisia edo banketxeak (% 9,7). Horri dagokionez, nabarmendu behar da azken horien agerpena biztanleriaren diskriminazio-eragile nagusietako bat dela: 2020. urtean, eta modu erregularrean, atzerriko jatorrizko pertsonen kasuak artatu dira (baita, batzuetan, nazioarteko babesa eskatzen dutenen kasuak ere), banku-zerbitzuetara sartzea galarazi zaienak, beren administrazio-egoerak zaildu egiten zuela argudiatuta.

23. grafikoa. Eremu pribatua: diskriminazio-arlo nagusiak, begiraden arabera (2020)



Eremu pribatuaren barruan, begirada bakoitzean etxebizitza oztopo nagusietako bat dela ikus dezakegu. Eraberean Sareak urtero egiten dituen txostenetan zehar, arlo horri buruzko problematika etengabea izan da, baina egia da joera desberdinak markatu direla.

Oro har, ijitoak dira etxebizitza eskuratzeko oztopo gehien dituztenak (% 50); aldiz, atzeritar jatorrizko biztanleentzat arazo gehien sortzen dituen eremua banku-erakundeekiko harremana da, horiek baitira administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonak diskriminatzen dituzten praktiken protagonistak.

Gai hori bereziki garrantzitsua da, kontuan hartzen badugu pandemiak lan telematikoaren eta ez-presentzialaren aldeko apustua ekarri duela berekin, eta, ondorioz, ezin izan direla AIZak izapidetu eta berritu atzeritar askorentzat.

LGTBI kolektiboaren kasuan, etxebizitza eskuratzeari gain, hainbat arlotako arazoak ere nabarmentzen dira, hala nola hezkuntza-sistemakoak (batez ere trans pertsonen kasuan eta horien izena matrikulazio-prozesuan) edo aisialdiko lokaletakoak.


“Normaltasun berriaren” neurriak, polemika iturri.

2020. urtean, banketxeetan gertatutako diskriminazio ekintzak ugaritu egin direla identifikatu da. Horrela, aurrez aurreko arreta minimizatu den eta online kudeaketa sustatu den testuinguru batean, atzerriko jatorrizko pertsonen –batzuetan ez dakite zein den hizkuntza eta/edo erakundeen beren mekanikak– gerora sortutako kalteberatasun-egoeren eraginpean egon dira.

Hori horrela, Eraberean Sareak arazo bat identifikatu du 2020an, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen banku-kontuen kudeaketatik eratorritakoa. Izan ere, pertsona horiei beren kontu korranteetara (eta, horrela, batzuetan onuradun ziren aurrezkietara eta laguntzetara) sartzeko falta zuten dokumentazioa eskatzen zieten.

Urratutako eskubideak:

24. grafikoa. Urratutako eskubideak (2020)



Urratutako eskubideak astertuz, azpimarratu behar da osotasun fisikoa eta intimitatea direla bi eskubide nagusiak. Ohikoa da arraza, sexu-egoera edo nortasunaren beste ezaugarri batzuegatik eraso fisiko bat jasan duten pertsonen kontakizunak jasotzea.

Intimitatea urratutako beste eskubide bat da, eta norberaren duintasunarekiko errespetu-falta salatzen da, hitzezko erasoak edo iruzkin arrazistak, xenofoboak edo homofoboak jaso, eta, ondorioz, pertsona zaurgarritasun-testuinguru batean aurkitzen da.

Kasuen % 17an, etxebizitzarako eskubidea da urratutako eskubide nagusia, eta % 15,1ean, osasuna. Lehenengoa ondasun higiezinak eskuratzeari buruzkoa da, bai eta bizikidetza-esparru baten barruko pertsonen arteko harremanei buruzkoa ere; bigarrenak, berriz, kexa gehiago bideratzen du enpatiarik eta ulermenik ezagatik osasun-ekipoekin hitz egiteko eta komunikatzeko orduan.

Gutxiago dira lana (% 9,4) diskriminazio-eremu gisa, babes judiziala (% 3,8) eta hezkuntza, enplegua eta bizitzeko eskubidea (% 1,9). Horrek diskriminazioaren espektro zabal bati buruz hitz egiten du, eta diskriminazio horrek, azkenean, askotariko eta elkarren arteko lotura duten hainbat eremu eta eremuri eragiten die.

NABARMENTZEKO KASUAK

Kapitulu honen azken atalean, antenek 2020. urtean egin duten kasu eta praktika diskriminatzaileak detektatzeko eta artatzeko lanari dagokionez, bereziki nabarmendu behar dira, beren izaera edo ezaugarriengatik prozesu judizial bateraino heldu diren kasuak. Sarearen beraren Batzorde Juridikoak bere gain hartu ditu kasu horiek, interes berezikoak direlako eta Sarearen helburuetarako estrategikotzat jo dituelako.

Antenek artatutako 63 kasuetatik, lauk ibilbide juridikoa izan dute. Aipatutako kasu horietatik, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Diskriminazio-kasu baten aurrean Sareko erakunde bat akusazio partikular gisa aurkeztea.
- Egoitza-baliabide batean praktika diskriminatzaileekin lotutako kasu bati zitazio judiziala egin arte laguntzea.

- Bide publikoan eraso fisiko baten biktima izan den emakume trans bati salaketa-prozesuan laguntzea.
- Atzerriko jatorriko pertsona bati laguntzea salaketa-prozesuan, bere lan-baldintzak ez bermatzeagatik eta lan-istripu baten aurrean arretarik ez emateagatik.

Nabarmendu behar da martxoan prozesu judizial bat itxi zela, epaia salaketa-jartzaileen aldekoa izanik. Zigorra, bi pertsonari ezarritakoa, 5 hilabeteko espetxealdia eta 40.000 euroko isuna izan zen, agiririk gabeko atzerritarrek modu irregularrean kontratatzeagatik. Sareko abokatu batek defendatutako kasu honek, gainera, oihartzuna izan zuen idatzizko komunikabideetan eta irratian, non hainbat titular bildu baitziren:

“Bilboko gozotegi bateko arduradunak kondenatu zituzten enplegu irregularragatik: zehazki, 5 langile kontratatu zituzten behin eta berriz modu irregularrean eta 5 hilabeteko epean, Venezuelako 4 emakume eta Txileko jatorriko gizon bat” (Cadena Ser irratia).

https://cadenaser.com/emisora/2021/03/01/radio_bilbao/1614605133_429086.html

“Justiziak agiririk gabeko langileen eskubideak aitortzen ditu” (Radio Popular).

Halaber, erregistratutako kasuen artean, hurrengo hauek iruditzen zaizkigu nabarmentzekoak, euren ezaugarri larriengatik:

- Emakume “trans” bati diskoteka batean sartzen ez uztea arrazoitu gabe. Emandako arrazoiak hauek izan ziren: “nagusiaren agindua da, bakarrik zaude eta ez dugu arazorik nahi”. Emakumeak erreklamazio-orrria eskatu zuen eta komisaldegira joan zen salaketa jartzera. Bertan, lehenengo ez zuten salaketa hartu nahi, eta gero, egunetan gestioak egiten ibili ondoren, ez zuten salaketa tramitatu nahi. Azkenik, kontuak Joko eta Ikuskizun Lurralde Zerbitzuan bukatu zuen.
- Modu berean, kasu batzuetan, poliziaren jardura bereziki hobetu daitekeela antzematen da, biktimen esanetan. Zentzu horretan, eraso fisiko baten biktimak adierazi zuen Udaltzaingoa gertaeraren tokira joan zela, arreta eman ziotela, baita bere eskubideak azaldu ere, baina ez zioten anbulantziari deitu. Salaketa jarri nahi izatekotan, komisaldegira joateko esan zioten, baina erasoak eragindako minaren ondorioz, hurrengo egunean medikuarengana joan behar izan zuen eta handik larrialdietara.
- Ildo horretan, konfinamenduaren garaian, auzoko salaketa bat egon zen, udaltzaingoaren esku-hartzea eskatuz, “etxebizitza batean alarma egoerak baimentzen zuena baino persona gehiago omen zeuden eta”. Sare sozialetan jarritako bideoak agerian uzten du poliziaren tratu desagokia etxebizitzaren aurrean dauden emakumeekin, eta ikusten da, gainera, nola polizia batek bultza egiten dion emakumeetako bati sartzen utzi nahi ez diolako. Bideoan ikusten denez, emakumeek Ertzaintza joateko eskatzen dute hainbat aldiz, izan ere, tratua ez da egokia.

- Nabarmentzeko beste kasu bat emakume “trans” batena da, atzerritarra, babes internazionalaren eskatzailea. Emakumea parke batean zegoela, gazte batzuek harreman sexualak izatea eskaini zioten. Hark ezetz esan eta irain arrazista eta homofoboek biktima izan zen, baita eraso fisikoaren biktima ere, izan ere, gazteetako batek ukabilkada bat eman zion eta, ondorioz, ospitaleko arreta behar izan zuen.

ERABEREAN SAREAK

ARTATUTAKO PERTSONEI
EGINDAKO ELKARRIZKETAK

IJITOEN AURKAKO DISKRIMINAZIO-TRATUAREN BIKTIMA BATI ELKARRIZKETA

“Nik ijitoekin ez dut ezer jakin nahi”

Tamarak, bere familiarekin batera, Errioxako kanping batean egun batzuk pasatzeko asmoa zuen, 2019ko udan. Kanping-eko arduradunek erakutsitako Ijitoen kontrako jarrera diskriminatzileak, ordea, bere asmoa zapuztu zuen.

Zer gertatu zen?

Gure asmoa Errioxako kanping batean egun batzuk pasatzea zen, horregatik, deitu egin genuen erreserba egiteko. Ez omen zuten erreserbarik egiten, baina ez genuela arazorik izango ziurtatu ziguten; izan ere, lurzati libre asko omen zuten.

Familiari aipatu nion, eta, horrela jakin nuen lehengusu batzuek arazoak izan zituztela kanping horretan bertan, sartzeari ukatu baitzieten ijito izateagatik.

Hori jakiteak kezka handia eragin zidan eta, horregatik, berriz deitu nuen kanpingera, arazorik egongo ez zela egiaztatzeko. Inondik ere nahi ez nuena zen bertara iritsi eta sartzen ez uztea, eta, horregatik, errepikatu nion erreserba egin nahi nuela. Artatu ninduen pertsonari adierazi nion Ijito familia bat ginela, eta jakin nahi genuela hori arazoa ote zen kanpingean sartzeko.

Pertsona horrek baieztatu egin zigun ez zela arazorik egongo.

Ordurako, Carmenen laguntza nuen, Eraberean Sarearen elkarte bateko kidea; berak lagundu zidan deiak egiten.

Handik ordu batzuetara, kanpingaren jabea gurekin harremanetan jarri zen. Honako hauek esan zizkigun: “ezta bururatu ere kanpingera inguratzea”, bertako lurzatiak ez

zirela guretzat erabilgarri egongo eta. Pertsona horrek adierazi zigunez, iraganean ijito familiekin arazoak eduki zituen. Gure datuak egiaztatzeko eskatu genion, ikusteko gure familia ez zela arazo haiek sortu zituen, baina ez zuen nahi izan. Nik ez neukan datu horiek zertan eman, baina prest nengoen hori egiteko, horrekin oporrak ez zapuztea lortzen banuen. Hala eta guztiz ere, ezetz esan zigun. Eta hau gaineratu zuen: “nik iji-toekin ez dut ezer jakin nahi”.

Eraberean Sarean egiten dugun lana aipatu genion, bai AMUGEkoa -nik lan egiten dut bertan-, baita NEVIPENekoa ere -hor Carmenek lan egiten du-, baina berak jarraitu zuen modu txarrean hitz egiten, ijitoak gutxiesten, eta azkenik, esan genionean le-ge-aholkularitza eskatuko genuela, telefonoa eskegi egin zuen.

Nolakoa izan zen salaketa-prozesua?

Carmen eta biok kanpingaren jabeak esandakoaren lekuko baginen ere, gure hitza beste frogarik ez geneukan, ez genuen elkarriketa grabatu eta. Hori egiteak erraztu egingo zuen salaketa-prozesua. Edozein modutara, salaketarekin aurrera jarraitu genuen.

Lehenik, Eraberean Sareak aholkatuta, kontsumitzailearen bulegoan kexa aurkeztu genuen, horrela ahalbidetuz kexa hori bi autonomia erkidegoetan aztertzea. Ondoren, Ertzaintzara joan ginen salaketa jartzera, eta han aitorpena hartu ziguten. Bertan ohar-tarazi ziguten era horretako salaketa batean gerta zitekeela guri leporatzea gertatutakoa gaizki interpretatzea. Hala ere, jarraitu egin genuen; izan ere, gertatutakoaz oso ziur geunden eta gaude.

Azkenik, Errioxako ijito-elkarte batekin harremanetan jarri ginen, eta elkarte horretakoak kanpingera joan ziren testing edo konparaketa bat egiteko asmoz; gure salaketarako froga gehiago lortzea zen helburua. Alabaina, oraingo honetan kanpingekoek ez zuten eragozpenik jarri eta, beraz, ezin izan genion salaketari ezer erantsi.

Antza, kasu honetan ez zuten trabarik jarri 3-4 pertsona zirelako; gure kasuan, ordea, 7 pertsona ginen eta hori izan zen arrazoia sartzan ez uzteko, ijito-taldetzat hartu gintuz-telako, ez familiatzat.

Gertakari horrek, ordea, ez du ezer bermatzen eta ez du ezeztatzen aurretik gertatu-takoa; izan ere, guk ere ez genuen arazorik izan lehen langilearekin, guztiz kontrakoa

baizik. Bestalde, telefonoz izandako elkarrizketa tirabiratsua ondoan, aurreikusten genuen kanpingekoek itxuraldatuko zutela gertatutakoa.

Pandemia iritsi zen eta prozesu judiziala geldiarazi zuen. Eraberean Sarearen antena bateko abokatuak, Mayrak, gure kasua Arartekora eramatea aholkatu zigun eta horrela egin genuen. Kanpingekoek euren babeserako erabili zuten argudioa, lehen esan beazala, hau izan zen: ez omen ziguten sartzen utzi, ez ijitoak ginelako, taldea ginelako baizik, eta, oro har, ez omen dituzte taldeak onartzen.

Argudio horrek, ordea, ez du balio, ez baikiñen talde bat, 7 laguneko familia ginen, eta bi lurzati erabiliko genituen.

Azkenean, frogarik ez zegoela eta, instrukzioko epaileak gure kasua artxibatu egin zuen.

lagungarria izan al da zuretzat Eraberean Sareak kasuan parte hartzea?

Alde handia izan da, batez ere lagunduta sentitu naizelako denbora guztian. Gainera, prozedura hau aurrekari bat izango da antzeko kasuetarako, zoritxarrez halakoak berriz gerta litezke eta.

Sarea ehunduz, eta horrelako egoeretan nola jokatu eta aholkularitza nola eskatu jakinda, tresna eta baliabide hobeak izango ditugu ijitoen aurkako jarrerari aurre egiteko.

Zein izango litzateke zure ustez diskriminazio-gertakari honen erreparazioa?

Ezin da inola ere erreparatu, izan ere, diskriminatuak izan ginen nire familia ez ezik ijito-herri guztia ere, eta nahiz eta salatu dugun, kanpinga zigorrik gabe geratu da. Nire ustez erreparazioa horixe da, alegia, halako ekintzak ez daitezela zigorrik gabe geratu, eta gizarte osoaren erantzuna izan dezatela, ez bakarrik diskriminatuak izan diren pertsonena. Erreparazioa litzateke arrazakeriaren kontrako jarrera eta diskriminaziorik eza normalizatzea, baina, zorritxarrez, kontrakoa da gure bizitzetan nagusi. Horretan datza benetako erreparazioa eta, batez ere, hori da gakoa bermatzeko halako gertaerak ez direla errepikatuko.

Elkarrizketaren egilea: Paula Piñón (AMUGE)

BANKETXE BATEAN IZANDAKO DISKRIMINAZIO- TRATUAREN KONTAKIZUNA

Bienvenu, Guinea Conakryko asilo-eskatzaileak, hau salatzen du: oinarritzko banku-kontua izateko eskubide unibertsalaren urratzea, “besteen moduko” gaztea izatea ahalbidetuko dion banku-kontua.

“Ez naiz ongietorria banketxe honetan”

Borrokatu beharreko eskubide guztietatik, Bienvenuk inoiz ez zuen pentsatu oinarritzko banku-kontu bat irekitzeko eskubide unibertsala haietako bat izango zenik.

Gurutzatu beharreko muga eta gainditu beharreko oztopo guztietatik, asilo-eskatzaile honek inoiz ez zuen pentsatu banketxe bateko atea garaitu beharreko hesi bihurtuko zela, beste hesi bat, alegia.

Guinea Conakryko beldurretik ihesi, bere bidaian zehar bizi izandako umiliazio guztietatik, 22 urte inguruko mutil honek ez zuen sekula pentsatu bere ametsetako Mendebaldean, oinarritzko banku-kontu bat irekitzea bera ere (dirua ateratzeko, saldoa kontsultatzeko edo ikastaro batean izena emateko...) berari galarazitako eskubidea izango zenik.

Bere istorioa 2020ko urriaren 30ean hasi zen, kontu bat zabaltzea eskatu zuenean Kutxabankeko bulego batean, Gasteizen. Gaur egun berak gogoratzen duen bezala, “beharrezko dokumentu guztiak aurkeztu nituen: asilo-eskatzailea nintzela egiaztatzen duen dokumentua, errolda-agiria, eta idazki bat, jasotzen zuena legearen arabera nik zerbitzu horretarako eskubidea nuela. Gerora, blokeatu egin zidaten kontua hainbat aldiz, eta, ezagun batekin joan ezean, traba asko jartzen zidaten kontua desblokeatzeko”.

Eta modu horretara, gauza arrunt batek, supermerkatuan erosketa ordaintzeak, adibidez, nahigabea sorrarazten zion; izan ere, ez zekien txartelak joko ote zuen ala ez.

Jakin ondo daki lotsa sentitzea zer den, denda batean blokeatutako txartelarekin ordaindu nahi izan duen bakoitzean. Ondo ezagutzen ditu ilararen beste bezero guztien mespretxuzko begiradak, hau pentsatzen duten bitartean: “ene! dirurik ez, eta ziria sartu nahi, seguru!!”; “baietz gizarte-laguntzen txartel bat izan eta dirurik gabe geratu, dena kirol zapatiletan gastatuta”; “hona etorri eta edozertarako eskubidea dutela uste dute, baita banku-kontu bat izateko ere”.

Banku-kontua izateko Eskubide UNIBERTSALA

Izan ere, ez da oso ezaguna banku-kontua izateko eskubidea unibertsala dela, eta horrela dago jasota legean. Hitzez hitz, 19/2017 Errege Lege Dekretuak, azaroaren 24koak, honako hauek aipatzen ditu:

“oinarrizko kontua eskuratzeko eskubide unibertsala”, “kreditu entitate guztiak behartuta daude eskaintzera, ukatzea posible den kasu jakin batzuetan salbu”.

Testuak, 2017ko azaroaren 25eko BOEn irakurri daitekeenez, hau gaineratzen du:

“kreditu-entitateak (...) behartuta daude asilo-eskatzaileei (...) oinarrizko kontuak ematera; nahiz eta lan-baimenik izan ez baina ezin direnak kanporatu arrazoi juridiko edo izatezko arrazoiengatik”.

Zentzuzkoa da halako pertsonentzat banku-kontu bat edukitzea oinarrizko eskubide bat izatea. Banku-kontuak aukera ematen du beste oinarrizko eskubide batzuk eskuratzeko, adibidez janarirako edo etxebizitzarako Udalak ematen duen diru-prestazioa kobratzea. Konturik gabe, nola kobratu RGI, Gizarte Emergentziazko laguntzak..., oinarrizko beharren estaldura bermatzen dutenak? Ba al dute aukerarik gizarte zerbitzu publikoek onuradunei dirutan ordaintzeko?

“Ez dago B planik banketxeekin: konturik ez baduzu ezin zara ezta futbol klub batean apuntatu ere” dio Bienvenuk. Ezin duzu kalte-ordaina kobratu, ezta zure seme-alaben izena eman ordainketak helbideratzen dituen ingeles-akademia batean...

Zentzu horretan, kontu-banku bat izatea Extranjeria Legearen “oinarrizko prestazioetarako eskubide”en barruan dago.

Orduan, zergatik jartzen dizkiete trabak banketxe batzuek etorkinei banku-kontuak irekitzeko? Zer dela eta Kutxabankek kontuari trabak jarri, lehenengo, eta, ondoren, blokeatu, nahiz eta Bienvenuk dokumentu bat izan, nazioarteko babesa eskatu zuela egiaztatzen duena?

Bienvenuk esaten du, blokeoa zela eta kexu zenean, “nik ez omen neukan dokumentu ofizialik kontua irekitzeko, hori izaten zen banketxean artatzen ninduen pertsonaren azalpena. Baina ez zen horrela, kontrakoa baizik. Asilo-eskatzaila nintzela egiaztatzen zuen dokumentua poliziak emandakoa zen, erabat baliozkoa eta ofiziala”.

Horixe da, hain zuzen ere, Eraberean Sarearen talde juridikoak argudiatzen eta defendatzen duena. Sareak aholkularitza eman dio Bienvenuri kexak bideratzeko eta Espainiako Bankuari erreklamazioa jartzeko diskriminazio-gertakari honengatik, Bienvenuren hitzetan, diskriminazio-tratuak “min egiten du, min handia”.

Izan ere, kontua blokeatzearen ondorioez galdetuta, Bienvenuk zera esaten du: “arazoa konpondu bitartean, ezin nuen nire dirua atera, ezta saldo erabilgarria kontsultatu ere. Txartelarekin eroatera joaten nintzen bakoitzean, ez nekien ordaintzerik izango ote nuen, banketxeak blokeatuko ote zuen beldurrez”.

Egun, Bienvenuk diskriminazio-tratu horren zergatiaz galdetzen dio bere buruari; izan ere, bere inguru hurbileko beste asilo-eskatzailaie ere eragiten die.

Izen hori izanda, paradoxa da bere buruari galdetzea zergatik ez dion ongietorria ematen gizarte honek; berak nahi duen gauza bakarra da beste gazteak bezala tratatzea, horiek futbol klub batean entrenatzen dute, lanerako prestakuntza-ikastaroetan izena ematen dute edo denen artean ordaintzen dute zerbait, banku-kontu batekin ere.

Elkarriketaren egilea: Rosabel Argote (CEAR Euskadi)

EMAKUME TRANS BATEN LEKUKOTASUNA

“Oso egoera iraingarria zen, antsietate handia sortzen zidan”

Kontsulta duen bakoitzean, familia-medikuak ez du tratatzen emakume moduan, ez du emakume-izena erabiltzen. Horren ordez, haren dokumentazioan azaltzen diren izena eta sexua erabiliz tratatzen du.

Euskadin 2012tik persona transexualoi (14/2012) Legeak eskubidea aitortzen digu administrazio publikoek gure sexu- edo genero-identitatea aintzat hartuta tratatu gaitzaten.

Aitortza hori modu orokorrean eginda dago (4. artikulua), baita espresuki arlo sanitarioan ere (10.a artikulua). Gerora, 2019an, Lege hori aldatu egin zen, eskubide hori berriaz sexu- edota genero-identitatearen autodeterminazio askearekin lotuz, besteak beste.

Trans pertsonok askotan egin behar izaten diegu aurre halako egoerei, hau da, dokumentazioan jasota dagoen sexuaren arabera tratatzen gaituzte, nahita edo ezjakintasunez, eta ez gure gorputzak adierazten duenaren arabera. Hori maiz gertatzen da transizio-prozesuen lehenengo faseetan, hots, guretzat oso kaltebera den momentu batean, garai horretan oraindik dokumentazioa egokitu gabe baitago.

Baina halako egoerak, gainera, bereziki mingarriak eta diskriminatzaileak dira, norbanako batekin ez baizik eta erakunde publikoekin gertatzen direnean, gero eta gutxiagotan gertatzen badira ere. Eta are gehiago beste pertsona batzuen aurrean gertatzen direnean; izan ere, gure identitatea agerian uzten da gure borondatea kontuan hartu gabe.

Horren adibidea da otsailean artatu genuen kasu bat, T.H.-rena. Latinoamerikako emakume transexual horrek osasun-zentroko lehen mailako bere medikuaren tratua salatu zuen.

T.H. gurekin –Errespetuz elkarte- harremanetan jarri zen laguntza eske, arazoa identifikatzeko eta irtenbide bat bilatzeko. Hau kontatu zigun: bere emakume-izena erabili beharrean, oraindik aldatu gabeko dokumentazioan azaltzen zen izena erabiltzen zuen medikuak itxarongelan, beste paziente guztien aurrean. Eta, gainera, behin eta berriz gauza bera, medikuak ez baitzuen zuzentzen, T.H.-k hala eskatu zion arren.

T. H.: “Oso egoera iraingarria zen, antsietate handia sortzen zidan”.

Elkartean, Eraberean Sarearen antena garen aldetik, diskriminazio zuzeneko kasua izan zitekeela pentsatu genuen eta, gainera, oso sentibera den arlo batekoa, osasun arlokoa, alegia. Prozedura martxan jarri genuen, eta beste alderdiarekin harremanetan jarri ginen, ahalik eta informazio gehien jasotzeko asmoz. Osasun-zentroan, T.H.-ren medikuarekin hitz egin genuen, eta gertatutakoa baieztatu zuen, baina, haren esanetan, ohartu gabe egindakoa zen, argi eta garbi. Medikuen jarrera lagungarria eta positiboa funtsezkoa izan zen salatzailea asebeteko zuen konponbidea bilatzeko.

Irtenbidea erraza izan zen: T.H.-k, hitzorduekin batera, eskatu behar zuen bere benetakoa izena erabiltzeko eta ez txartelean azaltzen den izena; informazio hori medikuari helaraziko zioten, eta horrela hark ekidin egingo zuen diskriminazio-tratua, nahi gabe osasun-zentroko erabiltzaileen aurrean ordura arte gertatzen zena. Emakume transexuala ados egon zen proposamenarekin.

Beranduago, kasuaren jarraipena egin zenean, emakumeak adierazi zuen hura ez zela berriz gertatu eta orokorrean osasun-zentroko langileen tratua hobea zela.

T.H.: “Orain askoz ere lasaiago nago medikuarengana joaten naizenean, badakit hori ez dela berriz gertatuko”.

Kasu honetan gako izan dira honako hauek: alde batetik, persona transexual batentzat oso latza da bereak ez diren izenaz eta sexuaz edo generoaz identifikatua izatea; eta, bestalde, T.H.-k ez zuen salaketarik jarri nahi izan, ez baitzuen nahi bere egoera idatzirik jasota geratzea. Azken hori oso ohikoa da LGTBI kolektiboan, izan ere, modu horretara euren identitatea babestu nahi dute.

Gure kolektiboan, batzuetan, ez salatzea da modu bakarra dokumentu ofizial batean

sexu-orientazioa edo sexu-identitatea edota genero-identitatea agerian ez uzteko. Erasotzaileek ezagutzen dute beldur hori eta askotan diskriminatzeko baliatzen dute, jakinda biktimak ez dituela gertakariak salatuko, bere burua agerian ez uzteko. Horregatik, garrantzi handikoa da kolektiboaren sensibilizazioa lantzea, uler dezaten diskriminazio-egoerak identifikatu eta salatu beharra daukatela. Are gehiago, kontuan izanda salaketa-prozesuan haiekin bat egingo duen persona bat aurkituko dutela.

Elkarrizketaren egilea: Sarai Montes (Errespetuz)

DISKRIMINAZIOA ETA
PANDEMIA

COVID-19aren pandemiaren testuinguruan pertsona migratuen, ijito-herriko pertsonen eta LGTBI kolektibokoen aurkako berdintasun-faltari eta diskriminazioari buruzko oharrak

Sarrera

Ez dago 2020an etnia-arraza jatorriagatik eta sexu-orientazio eta genero-identitateagatik izan den diskriminazioari buruzko balantzerik egiterik Covid-19aren pandemiak arlo horretan izan duen inpaktua aztertzeke tarterik hartu gabe. Artikulu honetan ikuspegi sindemikotik¹² eta dimentsio anitzeko ikuspegitik begiratuko diogu pandemiari. Hau da, hasteko, lotura estua ikusten dugu, batetik, pertsona eta kolektiboen zenbait aldagai sozialen eta bestetik, gaixotasunaren ondorioz haien osasunean (osasunaren baldintzatzaile sozialak) nahiz bizi-baldintzetan jasaten ari diren inpaktuaren artean. Eta bigarrenik, fenomenoaz gain, testuingurutzat hartzen dugu pandemia, eta hor daude sartuta gaixotasuna bera, erakundeek gaixotasuna artatzeko, eusteko eta ez zabaltzeko hartutako neurriak, eta komunitatean, gizartean eta ekonomian izan dituen ondorioak. Zazpi arlo jorratuko ditugu eta hurbilketa bat egiten saiatuko gara –erabateko zehaztasuna helburutzat hartu gabe– testuinguru horretan ijito, migratu edo LGTBiko kideen aurka izan diren berdintasun-falta eta diskriminazio egoeretara.

Hala, gure aztergaia zehazten duten hiru elementu identifikatu ditugu: berdintasun-falta, diskriminazioa eta testuinguruaren salbuespenezko izaera. Azken horren harira, erreferentzia gisa hartu ditugu Eusko Jaurlaritzak martxoaren

¹² Pandemiaren faktore sozialak kontuan hartuta.

13an onartutako osasun-larrialdiaren adierazpena¹³ eta ondoren izan diren alarma-egoerak¹⁴ eta horien luzapenak, Espainiako Gobernuak, martxoaren 14tik aurrera dekretatutakoak. Legezko esparru hori erabat ezohikoa dela erakusten du, tresna juridiko hori 40 urtean bigarren aldiz erabili izanak, baina harago joanda, denboran inoiz baino gehiago luzatu izanak, herritarrei dakartzkien oinarritzko eskubideen murrizketarekin. Era berean, “krisi sistemiko” honen – horrela izendatu du Nazio Batuen Garapenerako Programa– ondorio ekonomiko eta sozialen neurria dela-eta, giza garapenaren indizeak (GGI) erregistroak gordetzen direnetik inoiz izandako atzeraldi handiena izan du (NBBP, 2020). Aurreikuspenak baieztatzen badira, pandemia-urte batean aurreko sei urteetan aurreratutako guztia galduko da.

Hala ere, inpaktu global hau gizarte bakoitzera iristean, aurreikusten da lehendik klaseari, adinari, sexuari, etnizitateari edo egoera administratiboari lotuta zeuden berdintasun-faltak areagotu egingo direla. Hala, kolektibo sozial jakin batzuek jasango dute eragina desproporzio handiengan: adinekoek, emakumeek, lan prekarioak dituzten gazteek, migratzaileek, etxerik gabekoek edo osasun-arazoak dituztenek (Lanaren Nazioarteko Erakundea, LANE).

Euskadin, ildo horretan ohartarazten dute zenbait txosten eta azterlanek. Duela gutxi, Emakundek (2020) adierazi zuen pandemiak ez digula denoi berdin eragin, eta inpaktu negatiboa handiagoa izango dela lehendik zaurgarritasun handieneko egoeran zeuden pertsona eta taldeetan. Ia erabat dator bat NBBPrekin pertsona horiek nor izango diren adieraztean: lan prekarioak dituztenak, migratuak, etxerik gabekoak, adinekoak edo gaixotasun kronikoak dituztenak. Eta oso bereziki, kolektibo horietako bakoitzean, diskriminazio,

13 AGINDUA, 2020ko martxoaren 14koa, Osasun sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan koronabirusaren egoeraren eta bilakaeraren ondorioz osasun-publikoari lotutako neurriak hartzekoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 52. zk..

14 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 67. zk..

indarkeria eta eskubide-urraketa lotuta krisiaren eragin handiena jasaten ari diren emakumeak eta neskatilak.

Ezohiko egoera horien, berdintasun-falta eta diskriminazioaren, bat-egite horri lotuta, batetik eta bestetik azaleratzen ari den horri lotuta egin nahi ditugu zenbait ohar. Lehen aipatutako erreferentziei jarraituz eta diskriminazioari buruzko azterlanetan ohikoa izaten denaren ildoan, honako zazpi arlo hauei erreparatu diegu: familia eta etxea; espazio publikoa eta segurtasuna; komunikabideak eta sare sozialak; osasuna; hezkuntza; enplegua; eta administrazioarekiko harremana. Hori guztia, batez ere, etnia-arrazaren eta sexu-orientazio eta genero-identitatearen ikuspegitik.

Eginiko analisian ikusi dugu arlo horietako batzuetan eta kolektibo batzuetan berdintasun-falta hori nabaritzen dela pandemiaren inpaktuan, baina beste arlo batzuetan, ikusten dira zeharkako diskriminazio-egoera izan litezkeen zantzuak, eta beste batzuetan, gorrotozko diskurtsoei dagokienez adibidez, zuzeneko diskriminazioa ere bai, oso bereziki, pertsona arrazializatuen kontra; izan migratu, izan ijito. Oro har, zuzeneko diskriminazioari lotutakoak alde batera utzita, pandemiarekiko lotura testuinguruzkoa da; hau da, ez da, nahitaez kausazkoa, baina badu lotura harekin, aitzakia, motibazio edo aukera gisa.

Lan hau egiteko erabili dugun metodologiaren abiapuntua, hasteko, Europako, Espainiako eta Euskadiko erakunde publikoek eta entitate sozialek eginiko txosten eta azterlanak dira, hogeita hamar inguru, COVID-19ak ekarritako pandemiak izandako inpaktua etnia-arrazagatik eta sexu-orientazio eta genero-identitateagatik egiten den diskriminazioari erreparatuta jorratzen dutenak guztiak. Era berean, iturri horiekiko kontraste gisa eta gure gertueneko errealitateari buruz duten ezagutzari balioa emateko, online galdetegi egituratuen bidez neurtu dugu, Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako Eraberean Sareko antenei¹⁵ buruzko iritzia. Sare horren parte diren entitate sozialek hiru begirada biltzen dituzte: migratzaileena, ijitoena eta LGTBlena.

¹⁵ Immigrazioari, ijito-herriari eta LGTBI kolektiboek lotutako gaietan lan handia egin izan duten hirugarren sektore sozialeko erakundeak, Eraberean Sareko kide direnak.

Ohar-multzo honi ikuspegi interseksionala txertatzeari dagokionez, aitortu behar dugu txertatze hori mugatua dela eta aipatutako erreferentziazko begiraden artean gutxiago gertatzen dela ohikoagoak diren beste diskriminazio-aldagai (bazterkeria soziala, osasuna edo sexua) batzuen gurutzaketan baino. Azken horri lotuta, genero-ikuspegia ere mugatua da erabilitako iturriengatik; izan ere, iturri horiek ez dute genero-ikuspegia beti txertatzen, edo ez dute zeharka txertatzen. Hala ere, bereziki garatuta dago enpleguaren arloan eta etxeko langileen egoerari lotuta.

1. Familian eta etxean

Atal honetan aipatuko ditugu, alarma-egoeraren harira ikastetxeak itxita, mugikortasuna funtsezko jardueretara mugatuta eta herritar gehienak etxean familiakoekin eta bizikideekin konfinatuta egotera behartuta egoteagatik sortu ziren berdintasun-falta eta diskriminazio-egoerei buruzko oharak.

Platero eta López Sáezek (2020) konfinamenduaren lehen hilabete haietan eginiko azterlan baten arabera, gazteen % 62,4k sentitu zuten etxean haien orientazioa eta/edo identitatea ezkutatzeko beharra, eta horrek agerian uzten du hartu ziren neurriek inpaktu bereziki txarra izan dutela sexualitate eta genero-identitate ez-normatiboak dituzten haur eta gazteentzat.

Hori horrela, Aldarteren¹⁶ arabera, pertsona batzuei etxean isolatuta egon behar izateak berak etengabeko diskriminazioa ekarri die, LGTBI kolektiboko pertsona batzuek haien etxean bertan bizi duten onarpen-falta dela-eta. Horri, gainera, babes gisa erabiltzen zituzten ohiko mekanismorik gabe gelditu izana gehitu behar zaio; adibidez, esperientziak konfiantzazko pertsonen kontatzea edo haien identitateari eta sexualitateari lotutako esperientziak espazio seguruetan bizitzea. Errespetuz¹⁷ elkarteak ere ideia hori bera baieztatu du, zehaztuz, kolektibo jakin

¹⁶ Aldarte, gay, lesbiana eta trans pertsonen arreta eskaintzeko zentroa, Eraberean Sareko kide da.

¹⁷ Errespetuz, pertsona transexualak babesteko eta integratzeko elkarteak, Eraberean Sareko kide da.

horretako pertsona askorentzat oso zaila izan dela egoera, haien kontrako giroa zuen familia-nukleo batean konfinatuta egonda.

Ijito-herriari dagokionez, Nevipen¹⁸ elkartekoek azaldu digute, pandemiaren lehen hilabeteetan 90 familiarekin telefonoz eginiko azterlanaren arabera, etxea leku segurutzat, diskriminaziorik gabeko lekutzat dute, baina egia da horietako askorentzat bereziki zaila izan dela bizikidetzat haien bizilekuko gainokupazioagatik eta pilaketagatik, eta etxean espazio gutxi dutelako (La Parra y Arza, 2020).

Genero-ikuspegiari dagokionez, Kale Dor Kayiko¹⁹ elkartetik adierazi digute kasu batzuetan, neskak ilaje batzuek, ohiko zereginetaz gain, gaixo dauden familiakoen zaintza eta familiako beste lan batzuetan laguntzea hartu behar izan dutela haien gain. Horrekin lotuta, Emakundek (2020) ere agerian utzi du birusari aurre egiteko hartutako neurriek ekarri duten zaintzen bir-familiarizazioak (sic) inpaktu garrantzitsua izan duela emakumeen bizitzan, etxean, lehendik, zaintza-zereginak ez zirelako modu parekidean banatzen. Emakumei esleitutako zaintzaile-rol tradizionalak krisiari erantzuteko ardura handiagoko lekuan kokatu ditu familian.

Gurutze Gorrikoek²⁰ ere bat egin dute diagnostiko horrekin, eta adierazi dute gaixoa isolatu direnez, emakumeek bakardade handiagoa izan dutela zaintza-lanetan, eta haietako batzuek haien osasuna ere arriskuan jarri behar izan dutela besteren etxean zaintzen dituzten pertsonak artatzeko.

18 Nevipén Ijito Elkarte, ijito-herria Euskadin partaide izateko eta garatzeko elkarte, Eraberean Sareko kide da.

19 Kale Dor Kayiko, ijitoen elkarte, Eraberean Sareko kide da.

20 Gurutze Gorria Eraberean Sareko kide da.

Azkenik, aipagarria da badirela etxerik ez dutelako etxean konfinatu ezin izan direnak ere. Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiak (2020), 2020ko apirilean eginiko txosten batean, zaurgarritasun-egoeran edo gizarte-bazterketa egoeran egoteko arrisku handieneko pertsonetan identifikatu zuen hizpide dugun inpaktu hori. Etxerik gabekoak, Cáritas erakundeak argitaratu duenaren arabera (2020), gero eta gehiago dira. Haren arabera, etxerik gabeko pertsonen kopurua % 25 handitu da pandemia hasi zenetik, eta asko, jatorriz, atzerritarrak dira.

Euskadin euskal erakundeek jarritako larrialdiko ostatueta konfinatu behar izan zuten pertsonen dagokienez; haien egoera espazio publikoari eta segurtasunari buruzko atalean landuko dugu. Era berean, osasunari dagokion atalean ere aipatuko dugu etxe bat izan arren, etxe horrek konfinamendua beharrezko segurtasun-neurri guztiekin egiteko oinarritzko baldintzak betetzen ez zituen kasuan zeuden egoera.

2. Espazio publikoaren eta segurtasunaren arloan

Europako estatuak, gaixotasunaren hedapenari aurre egiteko, herritarren eskubideak eta askatasunak mugatzen dituzten ezohiko legezko neurriak aipatzen hasi zirenetik, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziak (FRA) zenbait buletin argitaratu ditu, batzuk hilean behin eta beste batzuk bi hilean behin, eta horietan, estatu-kide bakoitzarentzat espezifikoki monitorizatu dituzte neurri horiek zaurgarritasun bereziko taldeetan edo gutxiengo taldeetan dituzten eraginak. Buletin horietako batean baino gehiagotan (martxo eta uztaila) jaso zituzten gure lanerako interesgarriak diren bi motatako gertaerak.

Batetik, batez ere pandemiaren lehen hilabeteetan, komunitate txinatarraren aurkako indarkeria xenofoboaren zenbait gertaera, gorroto-krimen izan litezkeenak, jaso zituen Espainian (FRA, 2020). Ildo horretan, Comillasko Pontifize-Unibertsitateko Migrazioei buruzko Azterketen Unibertsitate Erakundeko Víctor Pérez Segurak dio indarkeria justifikaezin hori herrialde batean eta bestean

ugaritzen ari dela “bat-batean eta sinkronizatuta”; gainera, lehenengo, aurpegiera asiarreko edozeinen aurka, eta gero beste gutxiengo etniko batzuen, eta azkenik, pertsona migratuen aurka, oro har (Pérez Segura, 2021).

Badirudi azterketa hori bat datorrela Arraza edo Etnia Diskriminazioa Ezabatze Kontseiluaren iritziarekin ere. Haren ustez, diskriminazio-kasurak ugaritu egin dira auzotarren artean, eta horrek erakusten du krisi sozialek larriagotu egiten dituztela aurretiaz dauden arazoak (CEDRE, 2020) Era berean, Emakunderen iritziz (2020), diskriminazio-motibazioa duen indarkeria mota hori jasan dezakeen beste kolektibo bat emakume migratzaile, asilo-eskaera eginiko emakume errefuxiatu eta itzuliak dira; horiek dute eraso fisiko, psikologiko eta sexualak jasateko arrisku handiena. Baieztapen hori oinarritzeko, pandemiaren aurreko egoerari lotutako datu garrantzitsu bat ematen du: 2019an, indarkeria jasan, eta Ertzaintzak kasua erregistratu ahal izan zuten emakumeen % 38,8 atzerritarrak izan ziren.

Eraberean Sareko antenek, batez ere ijito-begiradari dagozkienek, agerian jartzen dute “gaixotasunaren zabaltzailetzat” jotzen zituzten gezurrek espazio publikoko bizikidetzan izandako inpaktua. Hori horrela, jabetu dira begirada txarrak jaso dituztela eta auzokide batzuk agurra ukatzen hasi zaizkiela; hitzezko erasoak ere jasan dituzten kalean edo garraio publikoan.

Horiez gain, Gipuzkoako SOS Arrazakeria elkarteak azterlan bat sustatu zuen Donostiaren eragin-eremuan familiako erreferentziarik gabe eta etxerik gabe zeuden jatorri atzerritarreko 37 gazterekin, eta etxeko konfinamendu zorrotzeko hilabeteetan egin zen azterlana. Horren arabera, pertsona horiek, hasierako uneetan gaitzespenak jasan zituzten herritarren aldetik (% 11k), eta segurtasun-indarrek kargu hartu zieten (% 42ri). Are gehiago, kasu batzuetan (% 5ean) zigorra ere jaso zuten (Arnoso eta beste batzuk, 2021).

Bestalde, FRAk (2020) buletinetan jasoak ditu espazio publikoan izandako beste mota batzuetako indarkeriazko eta diskriminaziozko egoerak, baina

aurreko kasuetan ez bezala, poliziaren ekintzak izan dira jatorria. Ildo horretan, Arraza edo Etnia Diskriminazioa Ezabatzeko Kontseiluko (2020) Biktimei Laguntza eta Orientazioa emateko Zerbitzuaren arabera, diskriminaziozko joera duten inguruabarrak areagotze hori alarma-egoera poliziaren eskumenak beharrezkoak ziren kontrolerako mekanismoekin osatu ez izanaren ondorioa da. Planteamendu hori bat dator Sirakusako Printzipioekin²¹ (ez dira lotesleak) eta Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioak (OHCHR) pandemiaren hasieran estatuei emandako orientazioarekin²²: aitortu zuen birusari zabaltzen ez uzteko eskubideen mugatze eta murrizte jakin bat zilegi zela, baina proposatu zuen hori legez egin behar zela, aldi baterako, proportzionalki, justifikatuta eta besteak beste, diskriminaziorik ez izatea bermatuz.

Biktimei Laguntza eta Orientazioa emateko Zerbitzu horren txostenean polizia batzuen diskriminaziozko jarrerak aipatzen dira, eta horietako bat hauxe da: “gehiegizko zaintza, batzuetan bortitza, (...), batez ere jatorri migratzaileko edo ijito-etniako pertsonen zuzendua”. Espainian Afrikarren Ondorengoen Hamarkada Ezartzeko Taldeak eta Rights International Spain (RIS) erakundeak ere bat egin dute Afrikarren ondorengoei buruzko Adituen Lantaldeak Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Kontseiluaren aurrean segurtasun-indarrek –Espainian praktika endemiko gisa– arraza-profilak erabiltzeari buruz adierazitako ondorioarekin. Txostenean Ertzaintzari egozten dizkiote egileek pandemia-garaian, Estatu osoan, lineako galdetegien bidez bildutako poliziaren identifikazioen eta/edo erasoen % 5,12 (Espainian Afrikarren Ondorengoen Hamarkada Ezartzeko Taldea eta Rights International Spain, 2020).

Horri dagokionez, Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiak (2020) pandemiaren lehen hilabeteetan eginiko azterlanean jaso zuen, kontsultatutako

21 NBE: Giza Eskubideen Batzordea. *Siracusako Printzipioak Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna mugatzeko eta indargabatzeko xedapenei buruz*, 1984ko irailak 28, E/CN.4/1985/4.

22 NBE: OHCHR. Larrialdi-neurriak eta COVID-19: orientazioak, 2020ko apirilak 27. Hemen eskuragarri: https://www.ohchr.org/Documents/Events/EmergencyMeasures_COVID19_ES.pdf

erakunde sozialen % 43,5ek adierazi zutela haien xede diren pertsonen aipatu izana arazo administratibo eta juridikoak zituztela; hala nola atxilotzeak edo iragateko arazoak, nahiz eta horretarako justifikazioa izan.

Zehazki, SOS Arrazakeria Gipuzkoak²³ sustatutako txostenean oinarrituta, “dokumentazioa etengabe eskatzea, erregistratzea eta lapurreta-ustea” gisa identifikatutako egoera horiek aipatu zituzten kontsulta egin zitzaizen etxerik gabeko gazte atzerritarren % 84k, eta haien arabera, batez ere, Ertzaintzarekin eta Espainiako Poliziarekin izan zituzten egoera horiek, eta neurri txikiagoan, udaltzainekin. Gainera, segurtasun-indar horien aldetik tratu desagokia jaso zituzteneko egoerak ere aipatu zituzten. Zehaztu beharra dago erantzun horiek ez daudela alarma-egoeraren unera mugatuta, baina bat datoz lehen aipatutako txostenekin, eta batez ere, erakusten dute bizitegi-bazterketa egoera larrian eta egoera administratibo irregularrean (horrela daude azterlanean elkarriketatutakoen % 89) dauden gazte magrebtarren bizipen intersektionala. Era berean, esku-hartze sozialeko profesionalak identifikatu dute kolektibo hori bereziki dagoela estigmatizatua, eta diskriminazio-egoerak sarri jasaten dituela (Arnoso eta beste batzuk, 2021).

EAEn alarma-egoeran pertsona arrazializatuekin egin diren polizia-jardun adierazgarrien artean deigarriena, agian, martxoaren 29an Bilboko San Frantzisko auzoan gertatutakoa izango da. Osasun mentalari lotutako arazoak zituen gazte bati eta haren amari eragin zien erkidego mailako poliziaren jardun hark. Hori horrela, aipagarria da Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak izandako erreakzio azkarra; izan ere, ordu gutxiren buruan abiarazi zuen gertatutakoari buruzko ikerketa (Espainian Afrikan Ondorengoen Hamarkada Ezartzeko Taldea eta Rights International Spain, 2020).

Diskriminaziorako joera duten gisa horretako polizia-jardunei egiten diete erreferentzia Eraberean Sareko antenek. Oso bereziki, ijitoen begiradako

23 SOS Arrazakeria Gipuzkoa Eraberean Sareko kide da.

antenek, adierazi baitute –Kale Dor Kayiko elkarteak, kasu honetan–, San Frantzisko auzoan poliziaren presentzia handia dela eta kasuren batean, neurrigabeko indarra erabili izan dutela. Agifugi²⁴ elkartekoek diote arau-hauste batzuekin erakutsi izan den tolerantzia ez dela gizarte osoarentzako berdina izan. Era berean, Langile Atzerritarrentzako Informazio Zentroak (CITE)²⁵ pertsona migratuei lotuta, abusu-egoerak izan litezkeenak aipatu ditu; adibidez, pertsona horiei dokumentazioa aipatutako xederako ez (gaixotasuna ez zabaltzeko mugak betetzea), baizik egoera administratibo irregularrean zeudela aurreiritzita eskatu zaienean. Gehitu²⁶ erakundeak, Donostiaren kasuan, hauteman du diskriminazioaren fokua etxerik gabeko pertsonetan zegoela gehiago.

Azkenik, eta etxerik gabeko pertsonen kolektiboari dagokionez, FRAREN (2020) buletinetan jarraipena egiten zaio pandemiaren testuinguruan izan diren eskubideen mugatze eta murrizketek ikuspegi sozialetik hain zaugarria den kolektibo honi eginiko inpaktuari. Krisiak pertsona horiei eragindako inpaktu larria arintzeko erakundeek abiarazitako ekimenak nabarmendu zituzten; horien artean, Euskadin eginikoa, familien eta etxearen arloari buruzko aurreko atalean aipatutakoa. Gure lurraldean, Hirugarren Sektorean Euskal Behatokiak (2020) aipatu ditu hartutako neurriek kolektibo horrentzat ekarri ahal izan dituen ondorioak; adibidez, isolamendu sozial handiagoa, errutina eta erreferentzien falta edo seguruak ez diren lekuetan konfinatuta egotea.

Pertsona horiek abiapuntuan duten berdintasun-faltak are zaugarritasun-faktore handiagoa ezartzen die pandemiaren eta haren ondorioen aurrean; are gehiago, talde heterogeneoa eta anitza dela kontuan hartuta, diskriminazio-kategoria batzuen eta besteen intersektzioa gertatzen baita. Hala, bazterketa sozialeko edo pobrezia egoerari, beste batzuk gehitzen zaizkio; hala nola,

24 Agifugi, Gipuzkoaren Etorbizunaren Aldeko Ijito Elkartea, Eraberean Sareko kide da.

25 CITE, CCOO sindikatuaren Langile Atzerritarrentzako Informazio Zentroa, Eraberean Sareko kide da.

26 Gehitu, Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Trans, Bisexual eta Intersexualen elkartea, Eraberean Sareko kide da.

sexuari, nazio-jatorriari, adinari edo etniari lotutakoak. Hori horrela, eta datu horietan infraerregistroa egiaztatu den arren, Euskadin erreferentzia gisa erabil daiteke 2018an zenbatetsitakoa: kontabilizatutako 2.320 etxegabeetatik % 51,98 jatorriz atzerritarrak zirela, % 26 emakumeak, % 12,5 adingabeak, % 32,7 45 urtetik gorakoak, % 19,9 osasun-txartelik gabekoak eta % 51,1 gaixotasun larri edo kronikoren bat zutenak (SIIS, 2018).

Gizarte-talde horrekiko kezkarekin bat dator Arraza edo Etnia Diskriminazioa Ezabatzeko Kontseilua ere, bai ezarritako murrizketa eta mugek oinarritzko zerbitzuak eskuratzeko orduan ekarri dizkieten zailtasunengatik, bai espazio publikoan jasotzen duten tratuatik (CEDRE, 2020). Azken alderdi horri lotuta, Eraberean Sarean, CEARen²⁷ bidez, udal-erakunde batek eskainitako larrialdiko ostatu batean ostatu hartutako pertsona atzeritar batek diskriminaziozko tratua jaso zuela adierazi ondoren, salaketa bideratu zen. Biltzeneko talde teknikoak koordinatzen du Eraberean Sarea eta, bestalde, ostatu hartan bizikidetzakudeatzeko laguntzaile lana egiten ari zen. Talde hark egin zion kasuari jarraipena eta ebazpena egokia izan zen, interpelatutako eragile instituzional eta sozial guztiek parte hartuta.

Nolanahi ere, larrialdietako baliabide horien balorazio globala ostatu horietan ostatu hartutako etxerik gabeko pertsonen egin zuten, eta balorazioa oso positiboa da, nahiz eta kudeatzaile-lana egindako erakundeen edo entitateen arabera aldeak egon, eta haien bizi-baldintzak nabarmen hobetzea ekarri zien (Arnoso eta beste batzuk, 2021).

3. Sare sozialetan eta komunikabideetan

Herritarrei adierazpen-askatasuna eta informazio-eskubidea izaten laguntzen diete komunikabideek eta sare sozialek, baina txanponaren beste aldean dago horien erabilera okerra, horrek desinformazioa, gezurrak, beldur edo gaitzespena

²⁷ CEAR-Euskadi Eraberean Sareko kide da.

sustatzea edo gorrotoa bultzatzea baitakar. Pandemiaren testuingurua ez da erabilera oker horren salbuespena, eta krisia hasi zenetik, berriro ere, kalte eta diskriminazioa jasaten ari dira, bereziki, pertsona eta kolektibo zaurgarrienak.

OMEk 2015ean gomendatu zuen ez zela komeni gaixotasun infekzioso berriak kokapen geografikoei, izen propioei edo sinbolo kulturei erreferentzia eginez aipatzea, hala, ahal den neurrian, edozein komunitaterekiko estigma saihesteko, eta gaixotasunari eta birus berriari izen aseptikoa eman zaien arren –COVID-19 eta SARS-CoV-2–, Comillasko Pontifize-Unibertsitateko Pérez Segurak azaldu du horrek ez duela saihestu pandemiaren lehen hilabeteetan, jatorri txinatarreko eta, oro har, asiarreko pertsonak sozialki seinalatuak izatea.

Handik gutxira, FRAk (2020) jaso duen moduan, diskriminazio, gaitzespen eta gorroto-diskurtsoen xedea ijito-herria izan zen, batez ere sare sozialetan, zenbait autonomia-erkidegotako kasuen gorakadaren “errua” egozten baitzitzairen.

CITE eta SOS Arrazakeria Gipuzkoa bat datoz iritzi horiekin, eta kontatu dute, pandemiaren hasieran komunitate txinatarrari erreferentzia egiten zioten gezur eta diskriminaziozko mezu ugari hauteman zituztela, eta ondoren, ijito-herriari zabaltzen zitzaizkiola.

FAKALI Emakume Ijitoen Elkarten Federazioak, Diskriminazioaren Behatokiaren bidez, estatu mailako komunikabideetan eginiko bilaketa sakon batean, 91 komunikabidetako 1.325 argitalpenetan ijitoen aurkako edukia aurkitu du. Horietatik 272 salatu egin dituzte, bistako eduki diskriminatzaile eta arrazistagatik. Zehaztu dute, sare sozialen arloan, ijitoei buruzko 10 argitalpenetatik 7tan ijitoen aurkako zantzuak aurkitu dituztela forma aldetik; adibidez, ijitoak estigmatizatzen dituzten diskurtsoak edo gezurrak (Fakali, 2020).

Khetané plataformak ere (2020) ildo hori sakondu du eta ijitoen aurkako mezu horietan bi argumentu-ildo nagusi identifikatu ditu: “erakundeen eta herritarren akusazioak ijito-familiei, ustez, alarma-egoerako arauak urratzeagatik” eta “birusak kutsatutako familien jatorri etnikoa seinalatzea”.

Ijitoen Idazkaritza Fundazioa bat dator diskriminazio-arazo larri hori badagoela adieraztean, eta 2020ko apirilaren hasieran telefono bidez eginiko inkesta zabal baten bidez adierazi dute inkestari erantzundakoen % 37k sentitzen zuela ijitoen komunitatearen irudi negatibo eta bidegabea ari zela zabaltzen koronabirusaren krisiaren testuinguruan (Ijitoen Idazkaritza Fundazioa, 2020).

Era berean, Arraza edo Etnia Diskriminazioaren Biktimei Laguntza eta Orientazioa emateko Zerbitzuak (2020) COVID-19aren hedapenarekin lotutako diskriminazio-pasarte ugari dokumentatu eta artatu ditu; bai kolektiboak, bai bakarkakoak. Horien artean daude ijitoei buruzko “idea faltsu eta kalumniazkoetan” oinarritutako WhatsAppeko audio-mezu batzuk, birusaren hedapenari lotutako albisteetan etnia aipatzeari lotutako “jardunbide desegokien” hemezortzi kasu eta herritar ijitoak birusaren hedapenarekin edo berrogeialdia ez betetzearekin lotzen dituzten berrogeita hamar mezu. Horiez gain, “ijitoen aurkako gorrotozko diskurtsoen” hiru foku nagusi identifikatu dituzte, eta Fiskaltzaren aurrean salatu dituzte.

Aipatu ditugun WhatsAppeko mezu horien artean aipagarria da bat, Euskadiko ijito-herriari bete-betean eragin ziona, Errioxako eta Gasteizko ijitoak koronabirusaren hedapenaren errudun egiten zituena, hiriko lehen agerraldia hileta batekin lotzen zuena, eta herritarrei eskatzen ziena saihesteko ijitoekin harremana izatea, besteak beste, merkatu ibiltarietara ez joanda. Besteak beste, honako adierazpide hauek erabili zituzten: “ijito guztiak kutsatuta egongo dira”, eta “ijitoetan dago kutsatzeen fokua”.

Illo horretan, Eraberean Sareko ijitoen elkarteek (Nevipen eta Agifugi) kezka adierazi dute krisiak haien eskubideetan atzera egitea ekar dezakeelako, eta diskriminazioaren biktimek bizi duten egoera ekonomiko larria dela-eta, balitekeelako haien lehentasuna ez izatea egoera salatzea. Kale Dor Kayiko elkarteak nabarmendu du kalte handia egin diela pandemiaren testuinguruan ijito familiei buruz, 3.000 euroko laguntza-txartel faltsuei lotuta zabaldutako beste gezur batek. Agintariek eta Newtral nahiz maldita.es komunikabideek gezurtatu egin zuten.

Hori horrela, ijito-herriaren aurkako gertaera eta gorrotozko diskurtso horien egiturazko izaera sakona ulertzeko, egokia da ECRIren²⁸ definizioa aipatzea, ijitoen kontrakotasuna honela identifikatzen duena: “arrazakeriaren forma espezifiko bat, arraza-nagusitasunean oinarritutako ideologia bat, deshumanizazioaren eta arrazakeria instituzionalaren forma bat, diskriminazio historikoak elikatua, besteak beste, honako hauek erakusten dutena: indarkeria, beldurraren diskurtsoa, esplotazioa, diskriminazioaren modurik agerikoena”.

Ijitoen komunitateak bereziki erasoak jasan duen arren, etorkinen kolektiboa ere estigmatizatua izan da pandemiaren testuinguruan. Hala, Arraza edo Etnia Diskriminazioaren Biktimei Laguntza eta Orientazioa emateko Zerbitzuak (2020) adierazi du honako hauek jasan dituztela: “oinarrizko eskubide osodun pertsona eta herritar gisa duten duintasunaren aurkako gaitzespen arrazistak”. Perna eta Moreno Fuentes egileek (2021) CIDOB zentroaren urtekarian jaso dute ohiko estereotipoa dela pertsona migratzaileak «gaixotasun-bektore» gisa aurkeztea, eta COVID-19aren pandemia horretan, horren adibide garbiak ari dira ikusten.

Sare sozialetan gorrotozko delituen presentziari dagokionez, Oberaxek eginiko Gorroto Diskurtsoa Sare Sozialetan Monitorizatzeko Buletinak nabarmentzen du 2021eko maiatzaren 25etik apirilaren 31ra gorrotozko diskurtsoa duten 1.864 eduki identifikatu dituztela Facebook, Twitter, Instagram eta TikTok plataformetan. Gorrotoaren xede diren kolektiboen pisuak gorabeherak izan ditu aztertutako aldian, baina oro har pertsona migratuek, familiako erreferentziarik gabeko atzeritar adingabeek, musulmanek eta ijito-herriko kideek jasan dute eraginik handiena (Oberaxe, 2020).

Ildo berean, Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiak (2020) agerian jarri du pandemia garaian jarduera jakin batzuk edo immigrazioaren inguruan zabaldu diren gezur batzuk izaten ari diren inpaktu mediatikoa, kolektiboaren irudiari eta

²⁸ ECRIren (European Commission against Racism and Intolerance) 13. Politika Orokorren gomendioa, ijitoen aurkako jarreraren eta errumaniarren/ijitoen aurkako diskriminazioen aurkako borrokari buruzkoa, 2011ko ekainaren 24an emana

estigmatizazioari eragiten diotenak. Komunikabide eta sare sozialetako insumo negatibo horiek guztiek eragin egiten diote euskal gizartearen iruditeriari eta mundu-ikuskerari, eta euskal gizartea aniztasunarekiko tolerantia bada ere, baditu mesfidantza batzuk zenbait dimentsiotan.

Hala, 2020an Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak argitaratutako barometroak erakusten du, euskal gizarteak baduela joera jatorri atzerriarrek herriarrek bertakoen eskubide berdinez gozatzeko duten eskubidea onartzeko eta babesteko osasuna edo hezkuntza eskuratzeari dagokionez, baina ez daudela hain ados beste eskubide batzuk eskuratzeari; adibidez, prestazio sozialak edo babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeari. Aipagarria da, COVID-19aren testuinguruan, euskal herritarren % 91,0k uste dutela egoera larrienean daudenentzako arreta lehenetsi behar dela, edozein dela ere haien jatorria (Ikuspegi, 2020).

Dimentsio horiek euskal gizarteak herritar atzerriarrentzako nahi lukeen integrazio-eredura ekarrita, esan liteke eredu hori "pixkanakako asimilazioaren" aldekoa dela. Inkestari erantzundako pertsonen % 85 baino gehiago ados daude jatorri atzerriarrek pertsonak integratzeko ahalegina haien eta bertakoen artean partekatu beharrezkin, baina % 75,1i iruditzen zaie herritar migratuek gure ohiturak eta tradizioak haienganatzeko ahalegina egin behar dutela (Ikuspegi, 2020).

4. Osasun arloan

Edozein osasun-krisitan, kolektibo zaurgarrienek jasaten dituzten gogorren krisiaren ondorioak, eta alde horretatik, COVID-19aren krisia ez da salbuespena. CIDOBen 2020ko urtekariak pandemia du gai nagusia, eta urtekari horretan, Perna eta Moreno Fuentes egileek (2021) azaltzen dute bizi- eta lan-baldintzek inpaktu handia sorrazten dutela osasunean. Horregatik, langabeak, gutxiengo etnikoak, langile etorkinak, desgaitasunak dituztenak, errefuxiatuak, etxerik ez

dutenak eta abar askoz arrisku handiagoan daude. Haien arabera, bazterketa soziala arrazakeriaren, diskriminazioaren, estigmatizazioaren, aurkakotasunaren eta langabeziaren emaitza gisa ere azaltzen da.

Etnia-arraza jatorria eta sexu-orientazio eta genero-identitatea zaurgarritasun-ezaugarritzat dituen diskriminazioari erreparatzen badiogu, diskriminazio horrek zera ekarri du, krisi-garai honetan izan dugun pandemiari, konfinamenduari eta askotariko errealitateei, gainerako herritarrekin alderatuta, gutxienez, desabantaila-egoeran aurre egin behar izatea. Eraberean Sareko antenek pandemiaren inpaktuan berdintasunik ez izateari lotutako zenbait elementu interesgarri identifikatu dituzte.

Agifugi eta Nevipen elkarteek iradokitzen duten hipotesiak dio herritar ijitoek COVID-19aren aurretik osasun arloan lehendik jasaten zuten berdintasunik gabeko tratua edo tratu desegokia areagotu egin ahal izan duela osasun-krisiak. Areagotze hori, hain zuzen, pandemiaren lehen hilabeteetan haien komunitateari buruz zabaldu ziren gezurrekin lotzen dute.

Aldarte elkarteak dio LGTBI kolektiboaren osasun-arretari eragiten dioten elementuetako bat zera dela, kolektibo hori esparru heterosexista batetik begiratuta ulertzen dela, eta esparru horrek berez baztertzen dituela LGTBI errealitateak. Lehendik hor zegoen elementua izanik, eta ez pandemiarekin zuzenean lotutakoa, badirudi ulertze oker horrek ez duela aldaketarik izan. Hala ere, Errespetuz elkarteak beste alderdi bat nabarmentzen du: espezialisten kontsultetarako itxarote-denborak luzatu izanak –horrek herritar guztiei eragin die– inpaktu espezifikoa izan du transexualetan eta haien iragate-prozesuetan. Batzuek antsietateari egin behar izan diote aurre arrazoi hori dela-eta. Horren antzera, gaixotasun kronikoak dituztenei ere eragin die horrek; adibidez, GIBa dutenek, eta Gehitutik adierazi dutenaren arabera, nolabaiteko zailtasunak izan dituzte sendagileengana iristeko eta sendagaiak eskuratzeko. Erakunde sozialen

pertzepzio horiekin lotuta dago Emakundek osasun arloko lehentasunak eta baliabideak krisiari aurre egitera bideratzeari buruz dioena, eta horri hartu diren neurri murriztaileak gehituta, baliteke horrek guztiak sexu- eta ugalketa-zerbitzuetara iristeko zailtasunak areagotu izana.

Osasun sisteman sartzeko zailtasun horiei lotuta, aipatu egin behar dira hitzorduen eta izapideen kudeaketa telematikoarekin eta telefono bidezko arretarekin lotutako zailtasunak ere. Sarbiderako modu horiek zailtasun handiagoak dakartzate eta nolabaiteko aukera-berdintasun falta sortzen diete informazioaren teknologien erabileran gaitasun apalagoak edo hizkuntzari lotutako oztopoak dituzten kolektibo sozial jakin batzuei.

Ildo horretan, Kale Dor Kayiko elkartetik adierazi dute ijitoen populazioaren zati batek zailtasun handiagoak izan dituela osasun-arazoak telefonoz azaltzeko. Eta CITEtik diote arazo horiek izan dituztela herritar migratu batzuek ere, hitzorduak galdu baitituzte edo prozesuak luzatu baitzaizkie, komunikazioa telefono bidezkoa izateagatik, edo kontsultara laguntzaile batekin joan ezin izateagatik larriagotu egin zaizkielako hizkuntzari lotutako zailtasunak.

Perna eta Moreno Fuentesek CIDOBen urtekarirako idatzitako artikuluan, lehen aipatu dugun horretan, zehaztuta dago jatorriz atzeritarrak diren herritarren zati batek pandemiari aurre egiteko dituen berdintasun-falta eta zailtasun espezifikoak. Bereziki, jatorria eta baldintza sozioekonomikoak intersekzioan dauden kasuetan: “kolektibo horiek pilaketa handia duten etxeetan bizi dira, eta oso-oso zaila izatean da distantzia sozialari eustea; baita beste prebentzio-praktika batzuk betetzea ere, hala nola, gaixotuz gero, nork bere burua isolatzea. Gainera, talde horietako askok oztopo linguistiko eta kulturalak dituzte harrera egiten dieten gizarteetan, eta harrera-testuinguruaren ezagutza ere mugatua dute. Horrek guztiak osasun-arretarako sarbidea nahikoa ez izatea ekar diezaielke, batez ere prebentziozko jardueretan. Amaitzeko, immigranteek, batez ere egoera irregularrean daudenek edo epe laburrerako bisak dituztenek, ez dituzte

osasun-arreta publikoa eskuratzeko bertakoen eskubide berdinak, eta osasun-aseguru pribatuek ez dute epidemia batek sorrazitako osasun-arazoentzako estaldurarik eskaintzen (Perna eta Moreno Fuentes, 2021).

Zailtasun horiek neurri batean arintzeko, gutxienez, informazio orokorrari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak zenbait ekimen abiarazi ditu Biltzen zerbitzuaren bidez. Horietako bat, aurreko Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak sustatua, Facebook-eko Adi!Covid kanala da. Osasunari, hezkuntzari, enpleguari, segurtasunari eta gizon-emakumeen arteko berdintasunari buruzko neurriei buruzko informazioa eta gomendioak ematen zituen mezu sinple, irisgarri eta grafikoen bidez, Euskadi bizileku duten herritar migratuen artean erabilienak diren hizkuntzetan (arabiera, frantsesa, ingelesa, errumaniera, errusiera eta portugesa, EAEn ofizialak diren euskara eta gaztelaniaz gain).

Horren antzera, 2020ko martxoan eta apirilean, Euskadiko Ijito Herriaren sustapen integralerako eta gizarte-partaidetzarako Kontseiluak lankidetzat bat sustatu zuen Osasun Sailarekin eta entitate sozialekin, kolektibo horri espezifikoki zuzendutako mezuek zabaltzeko, hain zuzen, gaixotasunari, prebentzioari, sintomei, jarduera-protokoloari eta abarrei buruzko informazioa emateko.

Aipagarria da, halaber, Eusko Jaurlaritzak Migra Covid sarea sustatu izana. Lankidetzat publiko-sozialerako sare bat da, tokiko mailan deszentralizatua, eta 80 entitate sozial inguruk hartzen dute bertan parte, gehienak pertsona migratuek edo horien aldeko lanean aritzen direnek osatuak. Sare horren bidez, herritar migratuekin espezifikoki lan egin ahal izan da, adibidez, tokiko agerraldietan, kasuen arakatzen, herritako baheketetan edo zaurgarritasun bereziko egoerak izan direnean.

OMEren Europarako Eskualde Bulegoak, Gaixotasunen Prebentzio eta Kontrolerako Europako Zentroak eta nazioarteko beste erakunde batzuek gomendioak eman dituzte etorkinek gaixotasunaren eta haren ondorioen aurrean dituzten beharrei gobernuek azkar eta eraginkortasunez erantzun

diezaien (WHO-OME, 2020; ECDC-European Centre for Disease Prevention and Control, 2020). Gomendio horiei jarraiki, Euskadin beste hiru neurri hartu ziren pandemia betean osasun-sisteman sartzeko lehendik zeuden berdintasun-faltazko egoerak eta gerta zitezkeen diskriminaziozko tratua prebenitzeko.

Lehenengoa Aldi Baterako Osasun Laguntzarako Agiria (ABOLA) orokortzea izan da, arrazoi bat edo beste dela medio (errolarik ez, dokumentazio-falta, gizarte-bazterketa larria...), Osasun Txartel Indibidualik (OTI) ez zutenentzako, eta beraz, sistematik kanpo zeudenentzako aukera gisa. Neurri hori lantzen ari ziren pandemia hasi aurretik Osasun Sailarekin batera Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroaren esparruan.

Bigarrena osasun-sistemara sartzeko zailtasunak izan, eta gaixotasunaren sintomak zituzten edo positibo emandako baten gertuko kontaktu ziren pertsonen PCR probak egiteari buruzkoa da. Xede horretarako, Munduko medikuak entitatearen Bilboko egoitza erabili zen zenbait hilabetez, eta 112 pertsona artatu ziren (batez ere, migratuak eta gizartetik baztertuta zeudenak), ABOLaren erabilera orokortu eta agiri hori osasun-zentroetan onartu arteko trantsizio-neurri gisa. CITEkoek berariaz aipatu dituzte OTIrik gabeko pertsonen PCR probak egiteko izan dituzten zailtasunak. Horri lotuta, eta etxerik gabeko pertsonen dagokienez, iturri batzuek osasun-arreta eskuratzeko zailtasunak identifikatu dituzte COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak izandako kasu batzuetan (Arnoso eta beste batzuk, 2021).

Hirugarren neurria baldintza zailetan bizi diren pertsonen haien burua modu seguruan isolatzeko izan dituzten arazoei lotutakoa da. Horietako asko begirada migratzaile eta ijitokoak, CITEren eta Nevipen-en arabera. Zenbait eragile sozialek gisa horretako egoera ugari identifikatu dituzte: etxe partekatuetan bizi direlako edo adinagatik, gaixotasunagatik eta abarrengatik arrisku-egoeran daudenekin batera bizi direlako konfinatuta egoteko modurik ez dutenak, edo konfinatzeak haien diru-sarrera bakarra galtzeko benetako arriskua dakarkienak. Hori gertatu

zaie, bereziki, jatorriz atzerritarrek diren etxeko langileei edo salmenta ibiltarian ibiltzen direnei.

Lurralde historiko bakoitzerako ostatu bat prestatu zen horrelako kasuak Osakidetzaren ESI29 bakoitzetik, zuzenean, bertara bideratzeko. Era berean, Biltzenetik, Osasun Sailarekin hala adostuta, herritarren eta elkarteek zerbitzura telefono-zenbaki bat jarri du, eta gisa horretako 250 kontsulta baino gehiago artatu dira bertan. Bitartekaritza-lana egiten du zerbitzu horrek herritarren eta Eusko Jaurlaritzak pertsona horiei aukerak eskaintzeko jarri dituen baliabideen artean.

Horren guztiaren helburua Perna eta Moreno Fuentes egileek (2021) pertsona migratuen inguruan nabarmentzen zituzten beharrak asetzea zen, kontuan hartuta, askotan lan prekarioetan eta diru-sarrera apalekin aritzen direla, etxeetan pilatuta bizi direla, eta oso zaila zela eta dela modu seguruan isolatzea, distantzia sozialari eustea eta birusa ez zabaltzeko bestelako neurriak betetzea.

5. Hezkuntzaren arloan

Alarma-egoera eta osasun-alerta aktibatzean, ikastetxe guztietako presentzialtasuna ere itxi egin zen. ELGAko herrialde gehienetan, lineako plataformak erabili zituzten eskolak ematen jarraitzeko, eta ikasturte berria hastean, berriro eskolara bertaratzen hasi ziren, normaltasun berria (sic) delakora egokitutako baldintzetan.

NBGP (UNDP, 2020), ELGA (2020), Intered (2020), Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia (2020) eta Enseñantes con Gitanos Elkarte (Enseñantes con gitanos, 2020) elkarteek haien txostenetan ohartarazi dute neurri horiek eragin

29 ESI, Erakunde Sanitario Integratua. Egitura organiko bateratu horietan daude txertatuta lehen mailako arreta eta ospitaleetako arreta, eta autonomia dute arlo ekonomiko-finantzarioan eta kudeaketan (100/2018 DEKRETUA, uztailaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren erakunde sanitario integratuei buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 133. zk.).

handiagoa izan zutela kolektibo zaurgarrienen, eta aldi horretan atzerapen akademikoa eta soziala gertatu dela berdintasun-faltari lotuta.

Horren arrazoietakoa bat arrakala digitala dela uste dute. Hau da, gailu elektronikorik eta sarerako sarbiderik ez izatea eta horiek behar bezala erabiltzeko gaitasunik ez izatea, eta etxean eskolak jarraitzeko espaziorik ez izatea. Interesgarria da aipatzea iturri horietako batzuen ustez (Intered, 2020; Enseñantes con gitanos, 2020; Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia, 2020) arrakala digital hori aurretiaz zegoen arrakala sozialaren edo berdintasun-falta sozioekonomikoen erakusgarri dela, eta hori horrela, hezkuntzan saio presentzialak kendu eta horren ordez eskolak linean emateak, batez ere, kolektibo sozial batzuei eragin zien; esaterako: jatorri atzerritarreko ikasleei, errenta baxuko familiei eta ijito-herriari.

Hala, ELGAren txostena harago doa eta adierazten du, “ingurune pribilegiatukoak diren eta gurasoen laguntzarekin eta ikasteko nahi eta gaitasunarekin ikasteko beste aukera batzuk eskuratu ahal izan zituztenekin” alderatuta “ikasgelak ixtean kanpoan gelditu ziren” kolektibo horiek jasaten duten berdintasun-falta balitekeela zabaldu izana.

Euskadin, lehen hilabete haietan, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Behatokiak (2020) jakinarazi zuen kontsulta egindako 10 erakundetatik 6ri iruditu zitzaizela arreta eskaintzen zieten pertsonen arrakala digitalak (ekipamendurik, konexiorik, gaitasunik... ez izatea) ekarritako arazoak izan zituztela konfinamenduan, eta ehunekoa % 87ra igotzen zela umeekin lan egiten duten entitate sozialen kasuan, eta hezkuntzarako arazoekin lotuta (eskolei jarraitzeko arazoak, eskola-atzeratasuna eta abar).

Eraberean Sareko antena gehienek (Nevipen, Agifugi, Kale Dor Kayiko, CITE, SOS Arrazakeria Gipuzkoa eta Gurutze Gorria) zehaztu dute zailtasun eta berdintasun-falta horiek eta kolektibo berdinetan hauteman dituztela: baliabide apaleko familiak eta ikasle migratzaileak eta ijitoak.

Intereden kasuan (2020), azaldu dute jatorri atzerritarreko familiek arrakala digital handiagoa izan dute haien zaugarritasun sozial handiagoaren zuzeneko ondorio gisa. Alderdi hori berdintasun-faltari eta pobreziari buruzko iturri ugaritan dago egiaztatuta³⁰. Jatorriz bertakoak diren beste familia batzuekin partekatzen dute egoera, eta bat egiten du horrek Kale Dor Kayiko elkarteak adierazitakoarekin; alegia, egoera honek ikasle ijitoei sorrarazi dien inpaktuak bere espezifikotasun propioak dituela ijitoen aurkako jarrera, baliabide apalak eta eskolako segregazioaren intersektzioagatik. Planteamendu horren ildotik, Enseñantes con Gitanos elkarteak (2020) estatu mailan, diote “15 urte egin dituztela atzera ikasturtearen hiru hilabetetan”.

Ikasle ijitoek jasandako inpaktuaren espezifikotasun hori bi alderditan zehazten da. Batetik, absentismo handiagoa, eta bestetik, aurreiritzi negatibo diskriminatzaileak berresleitzea.

Lehenengoa, absentismoa, eskolan kutsatu eta gaixotasuna belaunaldi arteko bizikidetza-nukleoetan dituzten adinekoengana iristeko arriskuaren beldurrarekin dago lotuta. Adineko pertsona horiek dira, gainera, autoritate gorena ijito-herrian. Hor interpretatu daiteke “osasunaren” balioa “hezkuntzaren” balioaren gainetik jartzen dela; izan ere, familia batzuek erabaki zuten adinekoak babesteko eta zaintzeko, aldi baterako eskola utzi beharra zegoela, egoera hobetu arte.

Bigarren espezifikotasuna ideia estereotipatu eta diskriminatzaileek indarra hartu izanarekin dago lotuta. Ijito-familiak bidegabe identifikatzen dira “haien seme-alaben heziketarekiko axolagabe” edo “ikasle ezin txarrago” gisa. Askotan, pobreziarekin eta gizarte-bazterketarekin nahasten da kultura.

³⁰ Horren adibide da Eusko Jaurlaritzak bi urtean behin argitaratzen duten Txirotasunaren eta Desberdintasun Sozialen Inkesta (EPDS).

6. Enpleguaren arloan

Enpleguaren arloan, aipagarria da pandemiak eragin dien lanpostu gehienak presentzialtasunarekin lotutakoak izan direla; hau da, telelana edo urrutiko lana egiteko aukerarik ematen ez dutenak. Egoera horrek zaugarritasun epidemiologikoa delakoa sustatzen du, hau da, gaixotasunaren eraginpean gehiago egoteagatik arrisku epidemiologiko handiagoa izatea, atzerapena diagnostikoan eta kontaktuen identifikazioan, edo isolatzeko edo berrogeialdia egiteko neurriak betetzeko zailtasun handiagoa (Espainiako Osasun Ministerioa, 2020).

NBGPTik agerian jarri dituzte, hain zuzen, distantzia sozialerako eta telelanerako a aukerarik ematen ez duten funtsezko jardueretan aritzen diren diru-sarrera apaleko talde sozialentzat izandako ondorioak, berdintasun-falta nabaria dutenak (UNDP, 2020).

Alde horretatik, Foessa Fundazioak argitaratu duenaren arabera, jatorri atzeritarreko langileen % 75 funtsezkoak eta prekarioak diren lanpostuetan aritzen dira: etno-estratifikazioa esaten zaio horri. Horrek inpaktu bikoitza dakarkio kolektibo honi: lanerako baldintza prekarioenez eta lanaren aldi baterakotasun eta desegonkortasun larriaz gain, kutsatzeko arrisku handiagoa dute lan horien ezaugarriengatik (Iglesias, Rua eta Ares, 2020).

Ramón Mahía egileak, CIDOBen urtekariaren artikulu-bilduman azaltzen du osasun-krisiak ekarritako atzeraldi ekonomikoa orokorra den arren, adibidez jatorri atzeritarreko langileen kolektiboarentzat berdintasun-falta handia duen inpaktua duela ezkutatuta (Mahía, 2021).

Horri lotuta, aipagarria da COVID-19a kontrolatzeko murrizketek eta mugek gehien eragin dien sektore ekonomikoen artean daudela ostalaritza, etxeko lana eta salmenta ibiltaria, eta hiru horietan jatorri atzeritarreko edo ijito-herriko pertsonak presentzia handia dutela. Eta jatorri atzeritarreko pertsonen

kolektiboan, emakumeek jasaten dute eraginik handiena, haiek aritzen baitira zaintzen, etxeko lanen eta ostalaritzaren sektoreetako lanpostuetan.

Zehazki, zenbait iturriren arabera, etxeko lanaren sektorean gehiegikeriazko egoerak eta lan arloan diskriminatzaileak izan litezkeenak gertatu dira. Ildo horretan, Malen Etxeak bere bazkideen artean eginiko inkestaren emaitzek ohartarazten dute inkestari erantzun zioten 300 lagunetatik % 56,4 egoera irregularrean zeudela eta alarma-egoera ezarri ondoren, % 46,9 lanik gabe zeudela. Konfinamendua ezarri zenean lana zutenetatik % 35,6ri etxean eta soldatarik gabe gelditzeko agindu zieten; % 21,3 kaleratu egin zituzten; % 18,1i atsedenaldiak debekatu zizkieten; % 16,3k ordu-murrizketa izan zuten, eta % 8 bakarrik gelditu ziren etxean soldatari eutsita (Carrizo, 2020). Datu horiek nahiko koherenteak dira aurreko urteetan beste iturri batzuek emandakoekin (Izaola eta Zubero, 2019).

Sonia Parella egileak, CIDOBen COVID-19ari buruzko urtekari monografikoan, langile talde horrentzat diskriminatzaileak izan daitezkeen beste egoera batzuk bildu ditu; hala nola lanaldiak luzatzea, egun libreak izateko eskubidea murriztea edo kutsatzeak saihesteko segurtasun-neurri egokirik ez izatea (Parella, 2021). Espainian Afrikarren Ondorengoen Hamarkadak eta RISEk (2020) jakinarazi dute SEDOAC zerbitzuak³¹ salatu duela, langile horiek, sektoreko irregulartasun maila altua dela-eta, lanerako lekualdatzeak justifikatu ezin zituztelako isuna jasotzeko arriskuan egon zirela. Emakundek (2020) argazki hori osatzen du, azalduz etxeko langileek, kasu batzuetan, haien lanpostuan konfinatuta egon behar izan dutela, familiek kutsatzeko beldurra zutelako.

Bestalde, ijitoei dagokienez, aldi baterako bertan behera gelditu zen salmenta ibiltaria, eta ondoren, horri lotutako gehieneko edukierak arautu ziren. FRAREN (2020) maiatzeko buletinean nabarmentzen zen ijitoen % 80, profesionalki, jarduera horretan aritzen direla, eta aipatutako neurriek talde sozial horretan neurritz kanpoko inpaktua izan zutela.

³¹ Etxeko Zerbitzu Aktiboa, zenbait nazionalitatetako emakumeek osatutako elkartea.

Hala, Ijitoen Idazkaritza Fundazioaren arabera (2020), etxeko konfinamenduak, lehen aipatutako neurriek eta beste jarduera batzuk egin ezin izateak familia asko larrialdi sozialeko egoeran utzi ditu, diru-sarrerarik gabe eta nor bere konturako langileentzako laguntzak lortzeko zailtasunekin. Egoera horrek eta kolektibo horrek COVID-19aren hedapenean lotura izan duela dioten zurrumurruen sorrera eta hedapenak kolektiboarekiko berdintasun-faltadun begirada eta diskriminazioa sustatu ditu.

Erakunde batzuek, Nevipen elkarteak adibidez, azaldu dute ijitoen bi etxetatik batean kaltea jasan dutela batez ere salmenta ibiltariarekin lotutako lan-jardueran. Gainera, hamar etxetatik bederatzitan ezin izan dute haien lan-jarduera telelanera egokitu, eta beraz, haien egoera ekonomikoa, itxuraz, ahuldu ez den arren –Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kobratzeak eta kudeaketak bere horretan jarraitu zuelako–, familiako diru-sarrerek kaltea jasan dute, ekonomiaren zati handi bat arlo informalean gauzatzen baitute.

Horrek guztiak prekarietate-egoera eta lan-bazterketa arrisku argian utzi ditu ijitoak; izan ere, pandemiaren aurreko egoeran, kolektibo zaurgarria zen, % 52ko langabezia-tasarekin, eta emakume ijitoek % 16ko enplegu-tasa zuten (Ijitoen Idazkaritza Fundazioa, 2020).

SOS Arrazakeria Gipuzkoako kideek, salmenta ibiltariari dagokionez, adierazi dute neurritz kanpokoak izan dela hortik bizi diren pertsona arrazializatuek jasandako inpaktua, baina horrez gain, balioa eman diote elkartasun-sareek emandako laguntzari (horien artean laguntza komunitarioak, janari-biltegi kolektiboak eta erresistentzia-kaxak). Kasu askotan, gainera, erantzun horiek eragina zuzenean jasandako pertsonen eman zituzten.

7. Administrazio publikoekiko harremanean

COVID-19a ez zabaltzeko hartutako neurrien artean, tokiko, erkidegoko eta herrialdeko erakundeek minimizatu egin zuten haien zerbitzuen erabiltzaileentzako arreta presentziala, eta horrek, zerbitzu horiek eskuratzeko orduan, berdintasun-falta ekarri du herritar zaurgarrien kaltetan.

Hala, alarma-egoera ezartzeak ekarritako testuinguruan, baliabide teknologiko horiek eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonen –aldi berean, kolektibo sozial zaurgarrienak direnak– murriztu egin zitzaizkien administrazioarekin interakzioan aritzeko gaitasuna, eta hori arazo erantsia izan zen haien beharrei aurre egiteko garaian, eta egoera horrek, kasu batzuetan, zuzeneko ondorioak izan zituen jatorri atzeritarreko pertsonen eskubideak eskuratzeko garaian.

Jatorri atzeritarreko herritarrek, hartu dituen herrialdeko sistema ez ezagutzeaz eta migratze-prozesuak amaitzean dituzten hizkuntza- edo kultura-oztopoez gain, beste arazo bat ere izan zuten: “arrakala digitala” delakoa. Termino horrek populazioaren zenbait sektorek zerbitzuetara sartzeko bidea ematen duten baliabide digitalak erabiltzeko duten zailtasunari eta horiek erabiltzeko gaitasun-faltari egiten dio erreferentzia.

Emakunderen arabera (2020), arrakala horrek gehien eragiten dieten kolektiboen artean daude dibertsitate funtzional fisikoa edo psikologikoa duten pertsona, adinekoak, pobrezia-egoeran edo arriskuan daudenak, jatorriz atzeritarrak eta abar. Azken horien artean, arreta presentzialik ez izateak eta online sistemaren aldeko apustua egin izana informazio-falta sorrarazten ari da, eta horrek ziurgabetasun handia sortu du kolektiboan.

Zehatzago, Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiak (2020) identifikatu zuen hiru erakundetatik biren onuradunek adierazi zutela arazoak dituztela arrakala digital horren ondorioz, bai gailu elektronikoetarako sarbiderik ez izateagatik, bai horiek erabiltzeko gaitasunik ez izateagatik (“alfabetatze digitala” esaten zaion hori).

Gurutze Gorrikoak eta CITEkoak ere bat datoz, eta diote hizkuntza eta baliabide digitalik ez izatea oztopo izan direla etorkinek administrazioarekin egin beharreko izapide ugaritan; besteak beste atzerriartasunarekin eta nazionalitatearekin lotutako izapideetan. Aipatu dute, izapideak online egiteko garaian hizkuntza ez jakiteak ere zailtasunak sortu dituela.

Egoera administratibo irregularrean dauden migratzaileen kasuan, online izapideak lehenetsi izana bereziki esanguratsua izan da. Errolda mugatzean, eta horri lotuta pandemia betean oinarritzko zerbitzuak –adibidez, osasuna– eskuratzean, prestazio sozialak eskuratzean edo dokumentazioarekin identifikatzeko zailtasunak, berriro ezinik edo izapidea egiteko hitzordua eskatu ezinik (Espainian Afrikarren Ondorengoen Hamarkada Ezartzeko Taldea eta RIS, 2020).

Eragina orokorra izan da, izapide ugariri eragin die (berritzea, familia berrelkartzea, errotze-eskaera, Gizarte Segurantzak...), maila batean edo bestean. Batzuk arriskuan egon dira alternatiba presentzialik ez zegoelako, eta beste batzuk kolapsatuta, atzerapenekin edo eragotzita (Mahía, 2021).

Hori horrela, Estatutako Administrazio Orokorrak eta Polizia nazionalak disfuntzio horiek zuzentzeko edo arintzeko hartutako neurriak ez dira nahikoak izan eta, kasu batzuetan, nahastea areagotu ere egin dute (Arango eta beste batzuk, 2021).

SOS Arrazakeria Gipuzkoak, horri lotuta, nabarmendu egin ditu alarma-egoeraren testuinguruan atzerriartasunari eta nazioarteko babesari lotutako prozeduretan epeak bertan behera uzteak ekarritako babesgabetasun-egoerak eta eskubideak eskuratzeko ezina (zehazki, asilo-eskubidea).

Internet eta baliabide birtualak izateko zailtasun hori ez dute atzerritarrek bakarrik, baizik oro har, diru-sarrera txikiagoak dituzten herritarrek zailtasun handiagoak dituzte baliabide horiek eskuratzeko. Estatistikako Institutu

Nazionalak argitaratutako datuen arabera (2020), etxean adingabeak dituzte diru-sarrera apaleneko etheen % 9,2k ez dute Internetarako sarbiderik.

Era berean, eta ijito-herriari dagokionez, Ijitoen Idazkaritza Fundazioak (2020) ondorioztatu zuen elkarriketatutako pertsonen erdiek baino gehiagok (% 53,2) haien komunitateko gizarte-zerbitzuen laguntza behar zutela, eta zaila da hori arreta presentziala kendu eta arreta telematikoia sustatu den testuinguruan.

Eraberean Sarean begirada horri atxikitako antenek, adibidez Kale Dor Kayiko elkarteak, azaldu dute areagotu egin dela haien komunitateko arrakala digitala, eta beste antena batzuek, adibidez Nevipen elkarteak, diote arrakala digitala dela ijitoek dituzten oztopo nagusietako bat, eta horrek are gehiago bultzatu dituela ijitoak bazterretara. Errutinazko izapideak aipatu dituzte; hala nola adingabeak familia-liburuetan inskribatzea, prestazioen edo larrialdiko laguntzen eskaerak edo diru-sarrerak bermatzeko errentarekin lotutako espedienteak izapidetzea.

8. Amaierako oharrak

Irailaren 26an, The Lancet aldizkari zientifikoko Richard Horton editoreak proposatu zuen osasun- eta gizarte-krisia sindemiaren ikuspegitik jorratu behar zela, eta ez gobernu eta erakunde gehienak egiten ari diren moduan, pandemiaren ikuspegitik. Beste ikuspegi honek interakzio biologikoak eta sozialak nabarmentzen ditu, eta aukera ematen du COVID-19a "adinekoen zaurgarritasunean; beltzen, asiarren eta etnia minoritarioetan; eta gaizki ordainduta eta babes sozial gutxiarekin aritu ohi diren funtsezko langileetan" izaten ari den inpaktu handienak identifikatzeko (Horton, 2020).

Alor batzuetan eta besteetan izandako inpaktuak aztertu ondoren, ez da zaila pandemiaren eta berdintasun-faltaren arteko lotura egitea, baita pandemiaren eta diskriminazioaren artekoa ere. Modu berean, Eraberean Sareko zenbait antena, adibidez Kale Dor Kayiko, Agifugi, Nevipen, Gehitu eta Gurutze Gorria,

bat datoz, esatean, pandemiaren ondorioek eta hari lotutako krisi sozial eta ekonomikoak gehiago eragiten dietela lehendik egoera prekario, ahul, zaurgarri edo diskriminatuenean zeuden kolektiboetako pertsonei.

Txosten batzuen arabera, ez dago banakatutako datu espezifikorik, baina pandemiaren testuinguruan, zenbait iturrik adierazi dute indartu eta birdefinitu egin direla pertsona migratuek, ijito-herriak edo LGTBI kolektiboko pertsonek jasaten duten diskriminazioa gertatzeko moduari buruzko alderdi batzuk (Espainian Afrikarren Ondorengoen Hamarkada Ezartzeko Taldea eta RIS, 2020).

Analisiaren xedetik oraindik hain gertu egoteak eskatzen duen zuhurtasunarekin (artikulu hau egindakoan, oraindik alarma-egoeran eta osasun-alertan gaude), eta kontuan hartuta gure helburua ohar batzuk egitea besterik ez dela, badira aintzat hartzea merezi duten zenbait gai garrantzitsu:

I. Diskriminazio-kontzientzia areagotzea. Sendotu egin da 2013tik datorren joera. Horren arabera, bateko edo besteko jatorri nazional edo etnikoko pertsonek neurri handiagoan identifikatzen dituzte jokabide diskriminatzaileak eta gehiago jabetzen dira horiek zer ondorio duten. Hala, bat-batean hautematen den diskriminazioaren pertzepzioa 10 puntu handitu da eta % 30,7ra iritsi da (CEDRE, 2020).

Hori bera aipatu dute Eraberean Sareko zenbait antenak. Zehazki, Nevipen elkarteak jakinarazi du ijitoen komunitatea askoz sentsibilizatuagoa dagoela eta argiago hautematen duela diskriminazioa, testuinguru honetan, diskriminazioak bereziki eragin dielako. Hori horrela, ez dago joera hori mundu osoan haserrea sorrarazi zuen gertaera batetik askatzerik; hain zuzen George Floyd-en hilketatik.

II. Infrasalaketei buruzko ziurgabetasuna Aldi berean, eta diskriminazioa eta haren xede diren kolektiboek diskriminazioaz duten pertzepzioa handitu izanarekin kontraesanik sortu gabe, iturri batzuen arabera, gaur egungo

testuinguruan salaketa gutxiago egiten dira. Hori adierazten dute zenbait txostenek (FRA, 2020; Arraza edo Etnia Diskriminazioaren Biktimei Laguntza eta Orientazioa emateko Zerbitzua, 2020). Askotariko arrazoiak azaltzen dituzte; adibidez, administrazioarekiko harremana zailagoa dela, lehen aipatu dugun moduan, bereziki zaurgarriak diren kolektiboetan biziraupena lehenetsi dela eskubideak erabiltzearen gainetik, eta diskriminazioa orain beste arlo batzuetan, biktimak isolatuago dauden arloetan gertatzen dela.

Hori horrela, Aldartekoek diote etxean eta familian gertatzen diren diskriminazioak oso gutxitan salatzen direla, eta zailagoa dela horiek hautematea eta horietan esku-hartzea. Era berean, erakusten du konfinamenduak eta distantzia sozialak zaintza-sareak gehiago isolatzea ekarri dutela, eta are babesgabeago utzi dituela horrek pertsona horiek.

Hala ere, beste iturri batzuek aurkako norabidera begiratzen dute, eta salaketak ugaritu egin direla adierazi dute. Hala, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak, adibidez, 2020an % 129,52ko igoera erregistratu du gorrotozko delituetan; hau da, arrazoa desberdintzat hartzen denaren aurkako gaitzespen edo aurkakotasunarekin lotuta duten delituetan (Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila, 2021). Ikusi egin beharko da beste iturri batzuek zer adierazten duten, adibidez, EHUKo Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrak gorrotozko gertaereiburuz egiten duentxostenak, edo Fiskaltzaren Memoriak gaihoni lotuta.

Nolanahi ere, diskriminazioa gai konplexua da, faktore askok eragiten diote, askotariko arloetan gertatzen da eta askotariko kolektibo sozialei eragiten die. Ez dago iturri bakarra, ez eta hurbilketa bakarra ere, eta beraz, pandemiaren testuinguruan infrasalaketak duen jokabideari buruzko ondorio bat ateratzeko, erakundeetako eragileen eta eragile sozialen arteko elkarlana eta diziplinarteko hurbilketa egitea behar da.

Bestalde, Eraberean Sarearen 2020ko memorian 63 diskriminazio-kasu bildu dituzte, aurreko urtean baino % 4 gutxiago, eta antenek adierazitakoaren arabera, horren arrazoia zera da, kasuistiken laburpena egin dela, eta ez kasuen bilketa zehatza.

III. Aldaketak diskriminazioa gertatzen den arloetan. Diskriminazioak zuzeneko lotura, baina ez eskusiboa izan ohi du interakzioarekin. Ala, interakzio hori egiten den espazioak aldatzeak aldaketak ekartzen ditu diskriminazioa gertatzen den arloetara, eta aldaketak izaten dira, halaber, arlo horietako bakoitzean diskriminazioa egiteko moduan.

Eraberean Sareko antenek zenbait egoera aipatu dituzte: etxean LGBTI pertsonen aurkakoak diren familia-nukleoekin konfinatuta egotea (Errespetuz); espazio publikoan interakzioak izateko ezina, oso egokia diskriminaziorako (Aldarte); sare sozialetan eta komunikabideetan gorrotozko diskurtsoek eta ijitoen aurkako diskurtsoek izan duten gorakada (Agifugi, Nevipen eta Kale Dor Kayiko); eta administrazioarekin izapideak telematikoki egiteko betebeharrak berria (CITE, SOS Arrazakeria Gipuzkoa eta Gurutze Gorria). Inguruabar berri horiei egoeraren araberrakoak diren beste batzuk gehitu zaizkie; adibidez, eskolak ixtea eta burbuila taldeetan aritzea, edo enpleguaren arlokoak (salmenta ibiltaria bertan behera gelditzea eta gehiegikeriak etxeetako lanean). Oraingoan, zaila da aldaketa horien guztien balantzea identifikatzea eta kuantifikatzea, baina itxura guztien arabera, aldaketa-prozesua gertatu da.

IV. Inpaktu orokorra eta espezifikoa kolektibo diskriminatuetan. Artikulu honetan, eta askotariko iturrien bidez, agerian gelditu da pandemiaren testuinguruak, oro har, berdintasun-falta eta diskriminazio handiagoak ekarri dizkiela lehendik zaurgarritasun-egoeran zeuden kolektiboak. Hala ere, inpaktu orokor horrek gure arretaren xede diren kolektibo bakoitzerako translazio espezifikoa du.

Ijito-herriari dagokionez, badirudi kolektibo hau dela estigmatizatuenetako bat, eta Arraza edo Etnia Diskriminazioa Ezabatzeko Kontseiluko Biktimei Laguntza emateko Zerbitzuak artatutako 53 kasuetatik 46 haiei dagozkie. Hala hauteman dute Eraberean Sareko ijito-begiradako antenek, eta aho batez adierazi dute pandemiaren testuinguruak agerian utzi duela gure gizarteetako ijitoen aurkako jarrera historikoa. Hala, diskriminazioaren bat-bateko pertzepzioan kolektiboek erregistratutako igoera handiena ijitoen artean izan da; ehuneko 15 punturekin (CEDRE, 2020).

Pertsona migratuei dagokienez, badirudi diskriminazioa oso estigmatizatuak dauden bi kolektibotan ardazu dela: Afrika beltzekoen eta Magrebeko kolektiboetan (CEDRE, 2020). Era berean, aipagarria da, espazio publikoan eta sare sozialetan gertatutako zuzeneko diskriminazioak asiarren komunitatean izandako inpaktua, batez ere pandemiaren lehen uneetan.

Azkenik, LGTBI kolektiboaren kasuan, Eraberean Sareko antenek adierazitako inpaktuak zenbait alderdi nabarmentzen ditu; adibidez alderdi interseksionala ardatz migratuarekin eta genero-ardatzarekin (Aldarte), eta trans pertsonen izandako inpaktu espezifikoa, osasun-sistemeekin duten harremanagatik, hori izan baita oraingo testuinguru honetan inpakturik handiena jasotako bat (Errespetuz).

9. Bibliografia

- Arango, Joaquín; Garcés, Blanca; Mahía, Ramón eta Moya, David (2021). "Inmigración y movilidad humana en tiempos del coronavirus" en Anuario CIDOB de la inmigración. Inmigración en tiempos de COVID-19 (14-29 or.). Bartzelona: CIDOB. DOI: doi.org/10.24241/AnuarioCIDOBInmi.2020.14
- Arnoso Martínez, Maitane; Aguirre, Itxaso; Marambio Guzmán, Karina eta Ferreira Aramendia, Marta (2021). Población en situación de calle durante la emergencia sanitaria: necesidades percibidas y requerimientos para su atención. Donostia: EHU eta SOS Arrazakeria Gipuzkoa.
- Cáritas (2020). Las personas en situación de sin hogar acompañadas por Cáritas. Contexto en 2019 y durante el estado de alarma y la COVID-19. Madril: Cáritas Española Editores. Hemendik eskuratua: www.caritas.es: <https://caritas-web.s3.amazonaws.com/main-files/uploads/2020/10/C%C3%81RITASestudios-e-investigaciones-22-web-.pdf>
- Carrizo, Silvia (2020). La pandemia estaba antes del COVID-19. Hemendik eskuratua: <https://malenetxea.org/la-pandemia-estaba-antes-del-covid-19>
- CEDRE (2020). Percepción de la discriminación por origen racial o étnico por parte de sus potenciales víctimas en 2020. Madril: Berdintasun Ministerioa. Hemendik eskuratua: https://igualdadynodiscriminacion.igualdad.gob.es/destacados/pdf/08-PERCEPCION_DISCRIMINACION_RACIAL_NAV.pdf
- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila (2021). Euskadiko delinkuentzia-kasuen 2020ko azterketa. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Hemendik eskuratua: [de https://bit.ly/33JAHz](https://bit.ly/33JAHz)

- ECDC-European Centre for Disease Prevention and Control (2020). Guidance on infection prevention and control of coronavirus disease (COVID-19) in migrant and refugee reception and detention centres in the EU/EEA and the United Kingdom. Stockholm. Hemendik eskuratua: www.ecdc.europa.eu/en/publications-data/covid-19-guidance-prevention-control-migrant-refugee-centres
- Emakunde (2020). Berdintasuna pandemia-garaian. COVID-19aren eragina genero-ikuspegitik. Hemendik eskuratua: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/emakunde_covid19/eu_def/adjuntos/2020.07.la_igualdad_en_epoca_de_pandemia.pdf
- Enseñantes con gitanos (2020). Impacto del covid-19 en los Centros Educativos con alumnado gitano. Documento de posicionamiento. Hemendik eskuratua: https://www.aecgit.org/downloads/paginas_p1/78/impacto-del-covid-19-en-los-centros-educativos-con-alumnado-gitano.pdf
- Espainian Afrikanen Ondorengoen Hamarkada Ezartzeko Taldea eta RIS (2020). Crisis sanitaria COVID-19: racismo y xenofobia durante el estado de alarma. Hemendik eskuratua: <http://www.rightsinternationalspain.org/uploads/publicacion/d0b782ac0452e9052241b17a646df19ad4edf12c.pdf>
- Fakali (2020). Fakali, antigitanismo y COVID-19. Informe del impacto del antigitanismo en la sociedad del coronavirus. Hemendik eskuratua: <https://fakali.org/wp-content/uploads/2020/12/Informe-FAKALI-Antigitanismo-y-Covid-19.pdf>
- FRA (2020). Coronavirus pandemic in the EU - Fundamental Rights Implications. Bulletins. Hemendik eskuratua: <https://fra.europa.eu/en/themes/covid-19>

- Ijitoen Idazkaritza Fundazioa (2020). Impacto de la Crisis del COVID-19 sobre la población gitana. Hemendik eskuratua: https://www.gitanos.org/upload/15/60/Resultados_Encuesta_a_Participantes_FSG_-_Covid-19__1_.pdf
- Horton, Richard (2020). "Offline: COVID-19 is not a pandemic", The Lancet, 396 bol., ISSUE, 10255, P874. DOI:[https://doi.org/10.1016/S0140-6736\(20\)32000-6](https://doi.org/10.1016/S0140-6736(20)32000-6)
- Iglesias Martínez, Juan; Rua Vieites, Antonio eta Ares Mateos, Alberto (2020). Un arraigo sobre el alambre: la integración social de la población de origen inmigrante en España. Madril: Fundación Foessa. Hemendik eskuratua: <https://caritas-web.s3.amazonaws.com/main-files/uploads/2020/09/9788484407935.pdf>
- Ikuspegi (2020). Barometroa 2020. Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak. Hemendik eskuratua: https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2020/bar2020_cas.pdf
- ILO-OIT (2020). COVID-19 and the world of work: Impact and policy responses. Geneva: Lanaren Nazioarteok Erakundea. Hemendik eskuratua: https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---dgreports/---dcomm/documents/briefingnote/wcms_738753.pdf
- INE (2020). "Encuesta sobre Equipamiento y Uso de Tecnologías de Información y Comunicación en los Hogares. Año 2019" INE, prentsa-oharrak. Hemendik eskuratua: https://www.ine.es/prensa/tich_2019.pdf
- Intered (2020). Impacto de la pandemia de la COVID-19 en el alumnado de secundaria nacional de terceros países en España. Estudio prospectivo en Madrid y Barcelona. Madril: Intered. Hemendik eskuratua: <https://www.intered.org/es/recursos/informe-impacto-de-la-pandemia-de-la-covid-19-en-el-alumnado-de-secundaria-nacional-de>

- Izaola, Amaia eta Zubero, Imanol (2019). Diagnóstico de situación de las personas trabajadoras del hogar en la Comunidad Autónoma de Euskadi y de las necesidades a las que dan cobertura. Leioa: EHU. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila Hemendik eskuratua: http://civersity.net/files/CIVERSITY_WP6-19_Osalan.pdf
- La Parra Casado, Daniel (zuz.) eta Arza, Javier (koord.) (2020). Encuesta sobre el impacto de COVID-19 en la Población Gitana 2020. Madril: Osasun ministerioa. Hemendik eskuratua: https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/promocion/desigualdadSalud/docs/COVID-19_Impacto_PoblacionGitana.pdf
- Mahía, Ramón (2021). “Los efectos del COVID-19 sobre la inmigración en España. Economía, trabajo y condiciones de vida”, hemen: Anuario CIDOB de la inmigración. Inmigración en tiempos de COVID-19 (68-81 or.). Bartzelona: CIDOB. DOI: doi.org/10.24241/AnuarioCIDOBInmi.2020.68
- Espainiako Osasun Ministerioa (2020). Equidad en Salud y COVID-19. Análisis y propuestas para abordar la vulnerabilidad epidemiológica vinculada a las desigualdades sociales. Hemendik eskuratua: https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/COVID19_Equidad_en_salud_y_COVID-19.pdf
- Oberaxe (2021). Boletín de monitorización de discurso de odio en redes sociales. Hemendik eskuratua: <https://www.inclusion.gob.es/oberaxe/ficheros/ejes/discursoodio/BOLETIN-VI-Marzo-abril-2021.pdf>
- Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia (2020). COVID-19aren eragina Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetan. Hemendik eskuratua: https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/Informe_COVID_19.pdf

- ELGA (2020). El impacto del COVID-19 en la educación. Información del Panorama de la Educación (Education at a Glance). Hemendik eskuratua: https://www.oecd.org/centrodemexico/medios/EAG2020_COVID%20Brochure%20ES.pdf
- Parella Rubio, Sònia (2021). “El sector del trabajo del hogar y de cuidados en España en tiempos de COVID-19”, Anuario CIDOB de la inmigración. Inmigración en tiempos de COVID-19 (102-114 or.). DOI: doi.org/10.24241/AnuarioCIDOBInmi.2020.102
- Khetané plataforma (2020). Rromani pativ. Informe antigitanismo informativo 2020. Hemendik eskuratua: https://rromanipativ.info/wp-content/uploads/2021/02/2021_01_18-INFORME-ANTIGITANISMO-INFORMATIVO-2020.pdf
- Platero Méndez, R. Lucas eta López Sáez, Miguel Ángel (2020). Perder la propia identidad. La adolescencia LGTBQA+ frente a la pandemia por COVID-19 y las medidas del estado de alarma en España. Sociedad e Infancias, 185-288. DOI: [10.5209/sozi.69358](https://doi.org/10.5209/sozi.69358)
- Pérez Segura, Víctor (2021). Migraciones y Pandemias Amenazas infecciosas en un mundo globalizado. Madril: Comillasko Pontifize-Unibertsitatea. Hemendik eskuratua: <http://hdl.handle.net/11531/53738>
- Perna, Roberta eta Moreno Fuentes, Francisco Javier (2021). “Inmigración y atención sanitaria en un contexto de pandemia: vulnerabilidades y (escasas) respuestas en Europa y en España”, hemen: Anuario CIDOB de la inmigración. Inmigración en tiempos de COVID-19 (116-128 or.). Bartzelona: CIDOB. DOI: doi.org/10.24241/AnuarioCIDOBInmi.2020.116

- Arraza edo Etnia Diskriminazioaren Biktimei Laguntza eta Orientazioa emateko Zerbitzua (2020). COVID-19ren krisiarkein eta alarma-egoerarekin lotuta artatutako kasuak. Hemendik eskuratua: <https://asistenciavictimasdiscriminacion.org/wp-content/uploads/2020/05/Informe-casos-COVID19-1706-DEF.pdf>
- SIIS (2018). EAEn bizitegi-bazterketa larria bizi duten pertsonen inguruko IV. azterlana. Donostia: SIIS. Hemendik eskuratua: <https://www.siiis.net/documentos/informes/545454.pdf>
- UNDP (2020). COVID-19 AND HUMAN DEVELOPMENT: Assessing the Crisis, Envisioning the Recovery. New York: Nazio Batuen Garapenerako Programa. Hemendik eskuratua: http://hdr.undp.org/sites/default/files/covid-19_and_human_development_0.pdf
- WHO-OMS (2020). Interim guidance for refugee and migrant health in relation to COVID-19 in the WHO European Region. Kopenhage: WHO REgional Office for Europe. Hemendik eskuratua: <https://bit.ly/3eAyMOE>